

Ekonomia gizakiaren esanetara

Krisialdian, bihozberritzea eta elkartasuna

IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN PASTORAL IDAZKIA

GARIZUMA – PAZKOA 2011

----- **AURKIBIDEA** -----

0. SARRERA

I. IDAZKIAREN GILTZARRI IRADOKITZAILEAK

- * Fede eraginkorra
- * Fede itxaropentsua
- * “Zorioneko” itxaropena, zuzentasun grinaduna
- * Karitateak sustatutako itxaropen

ebanjelikoa

- * Zaletasun ebanjelikoa gehien sufritzen dutenen alde
- * Bihozberritze pertsonal, komunitario eta soziala, gizakiaren esanetara dagoen ekonomiarako baldintza

II. EKONOMIA-FINANTZA KRISIA BAINO GEHIAGO

- * Larrialdi egoera orokorra
- * Bozkariotik izura
- * Finantza sektorea eta benetako ekonomia
- * Funtsezko hiru gabezia
- * Ikasgai mesedegarriak ikasteko aukera

III. AZTERTU BEHARREKOA

- * Ekonomiaren oinarri etikoa
 - Guztion ongizatea
 - Ondasunen banaketa unibertsala

- Elkartasuna

- * Guztion ongizatearen zerbitzura dagoen merkatua
- * Parte hartzeko ekonomia
- * Garapenaren ideologiatik harago
- * Gizakiaren eta giza elkartearen aldeko kulturarantz

IV. KARITATEA ZUZENTASUNEAN, PARTE HARTZEAN, ERUKIAN ETA ELKARTASUNEAN BIZI

- * Aparteko deia fededun elkarteari
- * Krisiaren izurrite eta aurpegiak
- * Fededun elkartearen erantzuna, fedearen eskakizuna
- * Karitate bizi eta itxaropentsua sendotu
 - Caritas gure elizbarrutietan
 - Biziera kontsokratua
 - Laikotza
 - Familiak
 - Gotzain, abade eta diakonoak
- * Erantzukizun, parte hartze eta elkartasunerako deia

V. BUKAERA

Ekonomia gizakiaren esanetara

Krisialdian, bihozberritzea eta elkartasuna

0. SARRERA

Pastoral idazki honek dei bizi izan nahi du gure kristau bizitza berrizta dezagun, Jaunaren Berpizkundearen Pazkoa pozez ospa dezagun. Urtero, ospakizun horren aurretik, Garizuma aldia ospatzen dugu, behin eta berriz bihozberritzeko dei egiten zaigun prestaketa aldi bezala.

Garizuma-Pazko aldiko idazki honek gure kristau bizitza berritzeko dei egiten digu...

1. Elizak benetako giza askapen eta salbamenaren oinarria den gertaera gogoratzen du urtez urte: Jesukristoren nekaldi, heriotza eta berpizkundera. Eta haurtzaro espiritual, bihozberritze eta aldaketazko “aldi sendo” baten bidez, Garizuma aldiaren bidez gertaera hau sakontasunez bizi izateko prestatuko du bere burua.

*...gizartean jasaten dihardugun **krisiaren** inguruan hausnarketa egiteko.*

Azken hogeita hamar urteetan aldian-aldian argitaratu izan dugu Garizuma eta Pazko aldiko pastoral idazkia. Aurten berriz egingo dugu, jasaten dihardugun **krisi** zorrotzaren inguruan hausnarketa egiteko. Hara zerk bultzatzen gaituen horretara: unearren larritasunak, pertsona askoren, batez ere babesgabeenen, sufrimenduak, guztion ongizatea jadesteko ahaleaginean dugun erantzukizunak eta krisi hau, bakarka eta elkartean, gure bihozberritzerako aukera bihurtu nahi dugulako eta, horrela, *munduarentzat benetako gatz eta argi*¹ izan nahi dugulako.

*Dena biltzen duen **krisia**...*

Gure garaiko eta gure gizarteko errealitatean murgilduta eta beronekin konprometituta dagoen gure kristau bizitzari nahitaez dagokio gaur egungo egoera. ‘**Krisia**’ hitzak azken urteotako egoera ekonomiko eta sozialaren ezaugarri diren arazo ugari eta anitzak biltzen ditu. **Krisia**, dena hartzen eta biltzen duen behe laino trinko eta iraunkorra balitz bezala dago hedatuta gure eguneroko bizitzan. Gure etxeetara irratiz, prentsa edo telebistaz iristen diren albiste eta informazio-komentarioetan, editorialen hausnarketetan, solasaldi eta eztabaidetan etengabe azaltzen da.

denongan eragina duen eta denok mehatxatzen gaituena.

Krisiak, bere era askotako alderdi eta ondorioekin, agintarien, alderdi politikoaren, erakunde sindikal, enpresari eta profesionalen kezka biztu du eta beren agendak bete ditu. **Krisiak** eragina du, era batera edo bestera, industrian, merkataritzan, zerbitzuetan eta sektore publikoan. Jende arruntak lanpostuen egonkortasunaren gainera datorren mehatxu bezala sentitzen du eta baita soldata murrizketetan, enplegu erregulaziorako espedienteetan edo langabezia.... Pentsioen erregulazioan, gizarte laguntzen murrizte edo desagertzean ikusten eta jasaten dugu. Enpresari askok, handi nahiz txiki, kredituen murrizketetan eta beren lan kargaren gutxitzean –batzuetan guztiz larria- ikusten du. Guztiok antzematen ditugu bere ondorioak kreditu eta hipotekak eskatzean, etxebizitza jadesteko saiakeran, lehenengo enplegua bilatzerakoan...

¹ Mt 5, 13-14.

*Krisia ulertu eta epaitu
egin behar dugu, aldatu
beharrekoa aldatzeko eta
elkartasuna bizitzeko.*

*Krisi honi, berau gertatu
aurretik ere bazeuden
egiturazko arazoak
gehitzen zaizkio.*

*Fedearen argitan,
krisiaren alderdi etiko eta
kulturala aztertu nahi
dugu, Espirituaren deia
entzun eta aldi honetan
Berri Ona iragartzeko.*

Azalpenak:

1. irakurketarako giltzak
2. krisiaren muina: eragin,
arrazoi eta sustraiak.

Proposamenak:

3. beharrezko aldaketak
bereizi, Doktrina
Sozialaren argira
4. kristau konpromisorako
argibide batzuk

Norentzat: fededun,
kristau elkarte, borondate

Gertaera benetan larri eta deigarriak dira. Ezin dugu burua ezkutatu gertatzen ari denaren aurrean eta, are gutxiago, beste alde batera begiratu, hainbeste lagunen sufrimenduaren aurrean ezikusiarrena eginez. Hain zuzen ere Berri Ona iragartzeko eta gatz eta argi izateko deia jaso dugulako, gaur egungo egoerari buruz gogoeta egin behar dugu, ulertzen eta zuzen epaitzen saiatu, behar dena aldatzeko bihozberritze sakonari ekin eta, batez ere, elkartasuna gauzatu krisiaren ondorioak jasaten dituzten pertsona guztien alde.

Jasaten dihardugun krisia ezin da aurreko urteetan gure artean pobretasun eta gizarte bazterketazko egoera larririk egon izan ez balitz bezala hartu. Egoera hauek, hain zuen ere, egiturazkoak dira eta ez egoeraren araberakoak, erabateko gizarte bazterketatik larrira eta partzialera doaz eta gure eredu ekonomiko eta sozialaren sakoneko gabeziak islatzen dituzte. Hona hemen datu kezagarri bat: krisiaren aurreko hamarkadan enpleguen kalitatearen hondatzearen eraginez soldatiko langileen pobretasun maila azken hamarkadetakoa altuena izan zela². Gertakari larri honek erabat sustraituta eta hedatuta dagoen irudi bat, hau da, enplegua ongizatearen hobekuntzaren bermea dela, zalantzan jartzen du eta aurrerago aipatuko ditugun garrantzi handiko auziak bizten ditu.

2. Ez dugu azterketa zientifikorik egiteko edo irtenbide tekniko edo politikorik eskaintzeko asmorik. Ez da gure egitekoa. Gertaerak egoki ulertu nahi ditugu, fedearen argitan irakurri, krisiaren etika eta kultura alderdiak nabarmenduz batez ere, eta bihozberritze eta konpromisorako bidezko ondorioak atera. Ziur gaude, horrela, hitz egiten digun eta oraingo egoera larrian Berri Onaren testigantza emateko historiako gertaeren bitartez bihozberritzera mugitzen gaituen Espirituaren deia ozenago entzungo duguna. Kristau elkartearen eginkizun utziezin eta iraunkor honek aparteko garrantzia hartzen du graziazko aldia den Garizuman, honela Pazkoa benetan bizitzeko prestatzen lagunduz.

Helburu horrekin, lau ataletan banatu dugu idazkia: lehenengoak, bere giltzarri iradokitzailak aipatzen ditu; bigarrenak krisia, bere eraginak eta arrazoi eta sustrai nagusiak ulertu nahi ditu azaletik; hirugarrenak, bigarren atalean aditzera emandako gaiak Elizaren Doktrina Sozialaren argira irakurri eta bereizi nahi ditu, ekonomia bizitza benetan gizakiaren eta gizaki guztien esanetara egon dadin behar diren beharrezko aldaketak proposatuz; laugarren atala krisiari bere alderdi desberdinetan erantzun egokia emateko deia da eta guztioi zuzenduta dago baina, lehenengo eta behin, gure elizbarrutiei. Azkenik, idazkiaren punturik esanguratsuenak jasotzen dira.

Ohikoa denez, gure elizbarrutiei zuzentzen diegu, lehenengo eta behin, pastoral idazki hau: fededun bakoitzari, parrokia, mugimendu, komunitate, familia erlijioso eta erakunde bakoitzari, gure

² Foessa Fundazioa. 'Foessa' IV. txostena, Espainiako bazterketa eta garapenari buruz, 2008. Madril 2008.

onoko pertsona eta
gizarte erakundeentzat.

elizbarrutietako berariazko egiturak ahaztu gabe. Era berean, guztion ongizatearekin dugun erantzukizunagatik eta hori jadesten laguntzeko nahiagatik, borondate onoko pertsona guztiei eta gure gizarte sarea osatzen duten ekimen sozial zein publikoko erakunde guztiei eskaini nahi diegu.

I. IDAZKIAREN GILTZARRI IRADOKITZAILEAK

*Pastoral Idazki honen hausnarketetan, **geure begirada bideratu** nahi dugu lehenengo, krisi egoera hau **ezagutzeko eta irakurtzeko giltzarriez** jabetuz.*

Gure ikuspuntua

Elizaren izatasun eta misioan oinarritzen da.

3. Idazki hau idazteko gogoia nahiz bere eduki eta helburuak, Elizaren izatasun eta misiotik eratortzen diren eta idazkia bere osotasunean ulertzeko giltza diren **uste sendo nagusi** batzuetan oinarritzen dira.

Ebanjelioa gure bizimodua benetan aldatzen duen “berri on” bezala iragari.

*** Fede eraginkorra**

Jesusen mezuaren funtsezko osagaia aipatuz, Ebanjelioa bizitzarako “berri ona” dela diosku Benedikto XVI.ak; horregatik, “ez da jakin daitezkeen gauza batzuen komunikazio hutsa, ekintzara jotzeko eskatzen digun eta bizitza aldatzen duen komunikazioa baizik”³. Ebanjelioan sinisteak, beraz, egoera honen nondik norakoez galdetzera garamatza, gure begirada Jainkoarengana eta hurkoarengana zuzenduz; eragin duten jarrera eta jokaerak aztertuz; ekonomiatik harago, bere benetako sakontasunera argitasunez hurbiltzera; baita geure bizimodua zalantzan jartzera, bihurtzera eta beharrezko aldaketak egitera ere; eta, guzti horretan, “berri onari” bizirik eutsi guztiontzat, baina batez ere gehien sufritzen dutenentzat.

*Orainari, Jainkoaren Erreinuaren ikuskeratik begiratu: **itxaropenez**.*

*** Fede itxaropentsua**

4. Kristau fedea itxaropenari, “gure orainari aurre egiteko balio digun itxaropen fidagarriari”⁴, estu lotuta dago. Horretan oinarriturik, kristau elkarteak badaki Jainkoaren Erreinuaren haziak sendo ereinda daudena eta zuzentasun, bake eta maitasunezko Erreinu hori, nahiz eta bere fruituak garaien bukaeran baizik ez izan behin betiko, dagoeneko gure artean dagoela iragartzeko eta aditzera emateko eginkizuna du. Hori dela-ta, Eliza beti “erromes” doan, Jainkoaren Hitza entzuten diharduen, Espirituaren jarduerara zabalik dagoen eta Jesukristoren behin betiko etorreraren zain dagoen elkarte da; errealitatea *itxaropenaren begiez* ikusten duen eta ikusten duen hori bereziki biziki etsita daudenen artean azalduz transmititzen duen elkarte.

Justizia irmotasunez bilatuz...

*** “Zorioneko” itxaropena, zuzentasun grinaduna**

5. Mendiko Hitzaldian, hauxe hots egiten du Jesusek: *Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko*⁵. Bizi dugun egoera honek gure zuzentasun grina biziagotzera eta kaltetuenean alde lan egitera dei egiten digu, horiek

³ Benedikto XVI.a. *Spe Salvi*, 2.

⁴ *Ibid.*, 1.

⁵ Mt 5, 6.

gehien sufritzen dutenak izan ez daitezen eta jasaten duten desabantaila horren eragileak errotik ateratzeko.

*Kaltetuenen egoerari
aparteko arreta eskainiz.*

Joan Bataiatzailearen ikasleek ia Bera zen etortzekoa galdetu ziotenean Jesusi, honek bere salbamenezko egintzak aipatu zizkien: *itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak biztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie*⁶. Gaur zuzentasuna bilatzea, ezinbesteko bidea da ebanjelioaren eta gizarteko azkenen arteko harreman estu hori gauzatzeko.

*Karitateak, giza
harremanak aldatzen
dituen Jainkoaren
maitasunak sustaturik.*

*** Karitateak sustatutako itxaropen ebanjelikoa**

6. Zuzentasunaren bila aritzea Erreinuaren zeinuetako bat bada ere, bere sustrairik sakonena maitasuna den Jainkoarengan dago. San Joanen Ebanjelioan jasotzen den agindu berrian erakusten zaigu zein den maitasunaren osotasuna. Maitasunaren neurria ez da dagoeneko norbera maite duten bezala maitatzea, Jainkoaren maitasunaren adierazpen den Jesusen maitasunaren era absolutu eta baldintzarik gabekoa baizik: *elkar maita dezazuela, nik maitatu zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino*⁷. *Hau guztia, zuon poz hori bete-betea izan dadin*⁸. Honela adierazten du Benedikto XVI.ak: ezin utzizko zuzentasun eskakizuna, “karitatearen gutxieneko neurria”⁹, ziurtzat jota, “karitateak zuzentasuna gaingitu eta osatu egiten du emate eta barkamenaren logikari jarraituz (...) Karitateak Jainkoaren maitasuna adierazten du beti, baita giza harremanetan ere, munduan zuzentasunaren alde hartzen diren konpromisoei teologia eta salbamen balioa emanez”¹⁰.

*Pobreen aldeko
lehentasunezko aukera
egi bihurtuz...*

*** Zaletasun ebanjelikoa gehien sufritzen dutenen alde**

7. Joan Paulo II.ak, “txiroen aldeko aukeraren edo lehentasunezko maitasunaren” sustrai ebanjeliko sakona aitortuz, ondorengoa zioen: “kristau karitatearen gauzatzean lehentasuna adierazteko aparteko aukera edo era da, (...) gure gizarte erantzukizunei eta, ondorioz, gure bizimoduari eta ondasunen jabetza eta erabilerari buruz koherentziaz hartu behar ditugun erabakiei ezartzen zaie”¹¹.

*Eskakizun ebanjelikoa
kristau gizabanako eta
elkarteentzat.*

Printzipio hau ezartzea Elizaren eta eliztar guztien aparteko betekizuna da beti, baina are eta ausardia eta premia handiagoz egitea dagokigu makalena gogorren astintzen dituen egoera honetan. Bakarka zein elkarteetan, gure mugimenduetan, komunitateetan, familia erlijiosoetan eta elizbarrutietan, ezarpen horretarako bide zehatzak bilatu behar ditugu. Ezin dugu beste inoren esku utzi. Zalantzarik gabe, gure

⁶ Mt 11, 5.

⁷ Jn 15, 12-13.

⁸ Jn 15, 11.

⁹ Paulo VI.a. *Populorum progressio*, 22.

¹⁰ Benedikto XVI.a. *Caritas in veritate*, 6. Bere beste baieztapen hau ere garrantzitsua da (ibid.): “gizakiaren hiria» ez da eskubide eta betebeharren loturekin sustatzen bakarrik; aurretik eta are gehiago, doakotasun, erruki eta batasunezko harremanekin suspertzen da”.

¹¹ Joan Paulo II.a. *Sollicitudo rei socialis*, 42.

elizbarrutietako Caritas erakundearekin erabakitasunez konprometitu behar dugu baina, gainera, geure bizitzetan eta aipaturiko eliz erakundeetan ere hartu behar dugu konpromiso hori.

*** *Bihoberritze pertsonal, komunitario eta soziala, gizakiaren esanetara dagoen ekonomiarako baldintza***

8. Indarrean dagoen krisialdia fedearen begiez irakurtzea Espirituaren deitza, graziazko alditza, aldaketarako edo hobekuntzarako aukeratzat hartu behar dugu. Beharbada, krisia ahalik eta bizkorren gainditzea eta gauzak beren ohiko bidera bueltatzea da gehienok nahi duguna. Normala da aldaketari aurka egitea. Gure bizimodua eta finantzek eta ekonomiak izan duten bilakaera mesedegarriak eta komenigarriak izan diren galdetu behar diogu geure buruari. Hartu dugun norabidea zuzena den galdetzean dago giltza. “Garapen ekonomiko hutsak ezin du gizakia askatu, alderantziz, esklabo bihurtzen du (...). Gizakia benetan bera denean, bere eskubide eta betekizunen osotasunean, da benetan libre; gauza bera esan dezakegu gizarte osoaz”¹², dio Benedikto XVI.ak.

Espirituaren deia entzun gaur egungo krisialdian...

*... bihoberritzeko deia; ekonomia **gizaki osoaren eta gizaki guztien** esanetara jartzeko.*

Gure ekonomia, benetan, gizaki osoaren eta gizaki guztien esanetara dagoen galdetu behar dugu. Ezinbestekoa da gizarte aberats eta kontsumista honek gizaki hobe egiten gaituen galdetzea; ia zuzentzat har dezakegun munduko pobretasunaren eskandaluaren eta herrialdeen arteko eta herrialdeetako bertako, aurreratueta zein azaleratzen diharduenetako, alde ekonomiko nabarmenen aurrean. Ezin dugu ahaztu, Benedikto XVI.aren hitzei erreparatu berriz ere, “benetako askapenak gainditu behar duen oztopo nagusia bekatua eta, ugaltzen eta hedatzen diren heinean, bekatua garmatzaten egiturak”¹³ direla.

II. EKONOMIA-FINANTZA KRISIA BAINO GEHIAGO

Krisiaren muina aitortu eta ezagutzera eman nahi dugu: jatorria eta bilakaera, sustraiak eta garrantzia, hedapena, eraginak eta ondorioak...

Hasieran krisi finantzario bezala agertu zen eta ekonomian arazo larriak sortu zituen gertaera hura ikuspuntu desberdinetatik aztertzen dihardute orain, bere benetako izaera eta garrantzia antzemateko. Askok aipatzen ditu krisiaren ondorio etiko, antropologiko eta kulturalak. Beste batzuek ekonomia eta hazkunde ereduaren eta gobernamentu orokorraren krisia izan daitekeela aipatzen dute arrazoiz.

*** *Larrialdi egoera orokorra***

9. Gaur egungo krisi ekonomikoa 2007. urtearen erdi aldera azaldu zen indartsu eta larrialdi egoera orokorra sortu zuen kate-erreakzio oso bizkorra eragin zuen. Jatorria finantzarioa izan bazen eta, hasiera batean, AEBetan kokatuta bazegoen ere, eragin zuen astinaldia oso

Estatu Batuetan hasi zen krisi finantzarioa oso arin transmititu zen beste herrialde askotako

¹² Caritas in veritate, 46.

¹³ Ibid.

benetako ekonomiara... arin transmititu zen bi norabidetan: geografia mailan, herrialde guztietara; eta, ekonomia arloan, gune finantzariotik benetako ekonomiara.

eta gaur egun, Nazioarteko Moneta Fondotik egin berri duten baieztapenean islatzen da krisiaren sakontasun eta iraunkortasuna: “Depresio Handia gertatu zenetik izan den krisi finantzariotik handienak eztanda egin zuenetik ia lau urte beranduago, munduko finantza egonkortasuna oraindik ez dago ziurtatuta eta politika ekonomikorako erronka esanguratsuak daude gainditzeke”¹⁴.

Finantza mugimenduen kontrolik eza, arriskuen balorazio eskasa eta mozkinak epe laburrera bilatzea daude sustraian. 2008. urte bukaerako agiri garrantzitsu batean, Vatikanoko zalantzarik gabe zioen hau: “gaurkoa, larrialdi egoera da, auzi garrantzitsu batzuei aurre egitea saihestu delako”¹⁵. Horien artean, ondorengoak aipatzen zituen: finantza mugimendu eta tresna berrien gaineko kontrolik eta arriskuaren balorazio egokirik ez izatea eta gaindimentsionaturiko finantza industrian oinarritutako mozkinak bilatzea epe laburrera.

Finantza merkatuetako akatsek etikarik eza islatzen dute. Txosten berean, adostasun zabala jaso duen zerbait aipatzen da: gaur egungo krisia zuzenean lotuta dago “oraintsu arte nagusi zen joerari, hau da, finantza merkatuaren funtzionamendua autoerregulaziorako bere gaitasunaren gain uzteari”¹⁶. Joera honek, nabarmentzen du aurrerago aipatutako txostenak, finantza merkatuen erregulazioa haustea, pribatizazioa eta liberalizazioa ekarri zuen. Autoerregulazio hutseko egoera horretan, finantza merkatu garatuenean porrot etiko sakona nabarmentzen duten eta 1929ko Depresio Handiaren osteko krisirik handiena eragin duten akats larriak izan dituzte. Hizkera arruntean esango genukeenez, merkatuaren autoerregulazioak, “lehenengo aldiz historian atzeraldi orokor eta erabat sinkronikoa eraginez”¹⁷, azkenean sistema osoa kutsatu eta leherrarazi duten “zabor” eta “burbuilak” sortu dituela esan daiteke.

Krisiak, auzi finantzario eta ekonomikoak ez ezik, politiko eta etikoak ere mahaigaineratzen ditu. Bitxia bada ere, Gobernuak, krisitik ateratzeko, beren auto-hondamenditik erreskatatu behar izan dituzte merkatu eta erakunde finantzarioak diru publikotik egundoko kopurua injektatuz¹⁸. Gauetik goizera, “zenbat eta Gobernu gutxiago hobe” aldarrikatu ordez, “Gobernuak urgentziaz eta erabakitasunez jardun behar dute hondamendia saihesteko” esatera igaro zen. Bistakoa da paradoxa horrek aurkezten dituen auziek eragin sakona dutena finantza, ekonomia, politika eta etika arloan¹⁹. Aipatu dugun Vatikanokoaren testu horretan jasotzen denaren arabera, ezinbestekoa da nazioarteko finantza sistema euskarri berrien gainean birsortzea.

* *Bozkariotik izura*

¹⁴ Nazioarteko Moneta Fundoa. *Munduko finantza egonkortasunari buruzko txostena*. 2011ko urtarrila.

¹⁵ Vatikanoa. *Nazioarteko finantza sistema birsortzeko itun berria*. 2008ko azaroa. 3c zenb.

¹⁶ Vatikanoa. *Nazioarteko finantza sistema...* 2. zenb.

¹⁷ Guillermo de la Dehesa. *La primera gran crisis financiera del siglo XXI*. Alianza Argitaletxea. Madril. 2009. 19. or.

¹⁸ *Nazioarteko finantza sistema...*, 2.

¹⁹ Jürgen Habermas. *Die Zeit*, 2010.eko maiatzaren 20a.

Diru errazak eta higiezin "boomak" irregulartasunak ekarri ditu herrialde desberdinetako ekonomiara...

10. Adituak bat datoz ekonomia globalak, batez ere goraka doazen ekonomien bultzada sendoari esker, azken hamarkadan hazkunde nabarmeneko aldia bizi izan duela esaterakoan. Bat datoz aldi berean, Estatu Batuetan, batez ere baina ez bakarrik, elkarri estu lotutako bi burbuila –finantzarioa eta higiezinena- hazten eta korapilatzen joan zirela baieztatzerakoan. Europar herrialde batzuetan ere, esate baterako Espainian, beren hazkunde ekonomikoa ohikoa ez den neurrikoa izan zen arlo batzuetan eta hori diru errazaren eta higiezin "boomaren" eragina izan da. Bitxia bada ere, sen onak egoera hori sostengaezina zela ikustarazten bazuen ere, "egoera hori saihesteko joera" bultzatu zuen bozkariozko egoera psikologikoa sortu zen.

horregatik dakartza hain ondorio larriak finantza eta higiezinaren krisiak.

Aldi berean, aho batez diote arrazoirik gabeko bozkariozko egoera horren ostean bat-batean hedatu zela izuz eta ikaraz beteriko egoera, arrazoirik gabekoa berau ere eta, ondorioz, 2007. urteko bigarren erdi aldera finantza eta higiezinaren merkatuak "lehortu" egin ziren, benetako ekonomiarentzako ondorio oso larriekin. Merkatuan konfiantza ia itsua izatetik erabateko mesfidantzara igaro zen eta denbora beharko da hori gainditzeko.

Diru-gosea eta ustelkeria ere azaltzen dira krisiaren jatorrian.

Aditu batek baino gehiagok "egoera saihesteko joera" ulergaitza atzera gelditzeko beldurrari erantzuteko mekanismotzat hartu du: "denek irabazten badute, nik, zergatik ez?". Zorpetze eta arriskuaren gurgil zoroaren azkartzea ekarri du horrek²⁰. Honen haritik, garrantzitsua da ekonomista entzutetsu baten ondorioa: "egia da diru-gosea eta ustelkeria daudena krisiaren jatorrian, baina bere arrazionaltasun mugatuan eta autokontrolik ezean adierazitako giza hauskortasuna ere funtsezko eragile izan da"²¹.

Sistema finantzarioa ezinbestekoa da ekonomiarako...

*** Finantza sektorea eta benetako ekonomia**

11. Azken hogeita bost urtetan, ekonomiaren arlo guztietan finantza sektoreak, eragiketen tamaina, kopuru eta motari eta mozkinen dagokienez, jadesi duen garrantzi gero eta handiagoa gertakari kezkarri bihurtu da. Finantza sistemak zeregin erabakigarri eta ordezkazina badu ere, bere neurri gainezko hazkundeak ez du loturarik izan ekonomiaren multzoarekin. Industria finantzarioaren eta benetako ekonomiaren arteko banaketa gero eta nabarmenago hau sakon aztertu eta ebaluatu beharra dago krisiaren argira²².

...baina "finantza ingeniartzako" jarduera batzuek ondorio kaltegarriak eragin dituzte ekonomian.

Finantza berrikuntzak nabarmen egin du aurrera, horrela ekonomiaren hobekuntzan lagunduz; hala ere, argi eta garbi bereizi behar dugu eragile positiboa "finantza ingeniartzako" jarduera batzuek eragindako ondorio kaltegarrietatik, hauek gertatu izan ez balira krisia, biztuta ere, ez zatekeen eta hain zitala izango. Eragiketen konplexutasunak eta "produktu finantzario deribatuak" deitutakoek zera probokatu dute: erakunde finantzario eta inbertitzaileek beraiek ere ez zekitela zein zen beren eragiketetako produktuen benetako oinarria eta jatorria.

²⁰ Guillermo de la Dehesa, 177. or.

²¹ Ibid., 83. or.

²² Elizaren Doktrina Sozialaren laburpena, 368-369.

Azkenean, merkatua opaku bihurtu zen. Ustez egiaztatutako kalitadedun produktuekin burutzen ziren eragiketak baina, benetan, produktu horiek ez zuten oinarririk eta horregatik egundoko galerak eragin zituzten, merkatu finantzarioa kolapsatu zuten eta kalte larria eragin zioten ekonomiari.

Epe laburrerako emaitzak bilatzeak ez du gizakiaren esanetara dagoen ekonomiarik eragiten.

Hauxe dio Vatikanoko honen inguruan: “zalantzarik gabe, honela iritsi izan gara gaur egungo larritasun finantzarioa: epe laburrera emaitzak lortzeko berehalako helburuak presionatuta, finantzen berariazko alderdiak, bere “benetako” jatorria - aurreztutako mozkinak benetako ekonomia, ongizatea, gizaki orenen eta gizaki guztien garapena suspertzen diren esparruetan erabiltzea-, hain zuzen ere, alde batera utzi izan direla”²³.

Ez da garapenerako benetako aukerak sortzeko arriskua hartzen duenari mailegatzeko arrisku finantzarioak hartzen.

Gainera, ondoz ondoko finantza krisiek eraginda, jarduera bat orokortu da: gaitz sozial larriak saihestu eta aurreztaileak babesteko, banku-porrota egon ezkeroko gordailuak bermatzen dira. Berme honek, teorikoek “arrisku moral” deitzen dutena eragin du. Honetan datza ‘arrisku’ hori: bermea egonda, finantza jarduera gero eta arriskutsuagoak garatzeko pizgarri bihurtu daitezke hori, porrota egon ezkeroko, sistemak erreskatea burutuko duelako: “Leon-Kastillo egin eta aurpegia ateratzen bada, neu irabazle; gurutzera atera ezkeroko, zeuk ordaintzen duzu”. “Arrisku moral” hau, teorikoa ez ezik, egia dela erakutsi du krisi finantzarioak. Gertatu dena, beharbada, arrisku horren areagotzea izan da, izan ere, Vatikanoko agiriak dienez, krisi hau “okerreko jardueraren emaitza ere bada, garapenerako benetako aukerak sortzeko arriskua hartzen duenari baino errazago mailegatzeko zaiolako ‘porrot egiteko handiegia denari’”²⁴.

*Finantza ekonomiaren eta benetakoaren arteko urrutzeak **ondorio** oso gaiztoak ditu:*
** kolapso finantzarioa,*
** geldialdia industria eta higiezinaren arloan,*
** inbertsiorik eza,*
** langabezia,*
** zergetako sarreren jaitsiera,*
** aurrekontu-defizitak,*
** gizarte babeserako neurrien ahultzea,*

Azken batean, krisiak “finantza ekonomia” deitutakoaren eta “benetako ekonomia” deitutakoaren arteko etengabeko urrutzea agerian utzi du. Bere ondorioak oso gaiztoak izan dira, krisitik ateratzea oso zail egiten duen kausen eta ondorioen espirala sortzean: kolapso finantzarioa, egundoko geldialdia industria eta higiezinaren arloan, inbertsioen lehortea ondasun eta ekipoetan, langabeziaren gehikuntza handi eta bizkorra, kontsumoaren uzkurdua gogorra, zergetako sarreren jaitsiera bortitza, aurrekontu-defizit onartezinak eta, ondorioz, gero eta alde handiagoa erabiltzeko moduan dauden baliabideen eta gizarte babeserako beharrezko neurrien artean. Itxuraz teknikoa den kate honen azkena, hala ere, argi identifika daitezke: beren lana eta sarrerak galdu dituzten, laguntza sozialak murriztu eta, kasu batzuetan, desagertu ere egin direla larritasunez ikusten duten, sistema ekonomikotik kanporatuak diren eta sistema sozialetik kanpo geratzeko arriskua duten gizabanako eta familia askoren zorigaitza. Gainera, krisiari lotuta dagoen elikagaien eta lehengaien garestitzeak

²³ Vatikanoko, *Nazioarteko finantza sistema...*, 2.

²⁴ *Ibid.*, 3c.

eta gizabanako eta familia askoren bizitzan eragiten dute.

egoera sostengaezin ekarri die milioika lagunei munduko herrialderik txiroenetan, beren biziraupena ere mehatxatuz²⁵.

Bidezkoa deritzagu gure elizbarrutietan benetako ekonomiaren oinarria eratzen duen eta, neurri handi batean, orain dugun ongizaterako lagungarri izan den enpresa eta industria tradizio luzea dagoela testuinguru honetan aipatzea. Egiteko garrantzitsua izan dute, eta gaur egun ere badute, bertan enpresari txiki eta ertainek beren enpresen aldeko konpromiso maila altua erakutsi dutelarik. Enpresa hauek industria finantzarioan sortu zen krisiaren eragin sakona jasan dute baina beren ezarpen eta jarduera onari esker, krisiaren eraginak neurri batean arindu egin dira gure artean.

*** Funtsezko hiru gabezia**

Krisia aztertzean, hiru gabezia ikusten dira:
* arau egokiak,
* kontrolerako erakundeak,
* jokaera etikoa.

12. Adostasun zabala dago krisi hau ikuspegi teoriko desegokien, akats teknikoen eta huts etikoen konbinazioaren eraginez gertatu dela baieztatzerakoan. Horrek, bere jatorrian dauden funtsezko hiru gabezia aditzera eman ditu: merkatu globala –batez ere finantzarioa– zuzentzeko neurri egokiena, bere funtzionamendu ona bermatzeko gaitasun nahiko duten erakundeena eta, azkenik, gabezia etikoa, berau gabe krisi hau ez zatekeelako gertatuko gertatu izan den bezala.

Arau teknikoen permisibitateak eta lasaitze moralak **deskalabru etiko** bihurtu dute finantza krisi hau.

Merkatuaren berariazko mekanismoekiko teoria lar permisiboak arriskuak nork bere egitea eta ebaluatzea zuzentzen duten oinarrizko arau teknikoen arloan lasaikerian erortzea ekarri du; baina, era berean, lasaitze hori huts moral larriak erakusten dituzten jokaera batzuek eragin dute. Honen haritik, guztiz adierazgarriak dira Michel Camdessus hitzak: “krisi finantzario hau deskalabru etikoa ere bada, benetan, eta, beharbada, batez ere”²⁶.

Krisitik ateratzea ez datza lehengo egoerara bueltatzean.

*** Ikasgai mesedegarriak ikasteko aukera**

Politika ekonomikoko neurriak ez dira nahiko krisia konpontzeko.

13. Krisia, beti da azterketa eta hobekuntzarako aukera eta hori ez dugu alferrik galdu behar. Hau dela-ta, bi arrisku kontuan hartu behar ditugu: lehenengoa, geldotasunetik, aldatzeko beldurretik eta jokoan dauden interes partikularretatik jaioa, ahalik eta bizkorren lehengo egoerara bueltatzea da, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Arrisku hau uste duguna baino askoz hedatuago dago eta, neurri handi batean, hobetzeko aukera muga dezake. Bigarren arriskua, egoera politika ekonomikoko neurriekin konpon daitekeela pentsatzea da, hala nola: merkatuen arautze hobearekin, arriskuen ebaluaziorako metodoen azterketarekin, bankuek estaldura handiagoa eskaintzearekin eta, dagokionean, doitze estrukturalerako beharrezko neurriekin.

Krisi hau gainditzeko, neurri tekniko eta

Aginpidedun instantziak eta indar sozial desberdinak beharrezko neurri tekniko eta politikoak aurkitzen eta ezartzen ahalegintzen badihardute ere, gaur egungo krisiak hausnarketa sakona eskatzen duten porrot

²⁵ 2011.eko otsailaren 15eko bere 2011/333/PREM prentsa agirian, zera ohartarazten du Munduko Bankuak: “prezioen garestitzeak txirotasunera daramatza milioika lagun eta egundoko zama da beren sarreren erdia baino gehiago elikagaietan gastatzen duten sektorerik ahulenezat”.

²⁶ Elkargi. Aterako gara krisitik! Nola eta noiz. Donostia. 2009. 67. or.

*politiko egokiez gain,
erabaki moralak behar
ditugu.*

ekonomiko, etiko, antropologiko eta kulturalak erakusten ditu. Joan Paulo II.ak profetikoki adierazi zuen, gure mundu hau non pertsona guztiak duintasunez eta bakez bizitzea bilatzen duten, “bekatuzko egituren menpe”²⁷, hau da, munduko lurraldeen artean, herrialdeen artean eta herrialde bakoitzean bertan, alde nabarmenak sortzen dituzten mekanismoen menpe, beste batzuen aurrean abantaila lehiakorrei eusteko borrokan menpe, denak irabazle ateratzen ez diren eta batzuek besteen galtzen dutenaren kontura irabazten duten “zero batuketa” kulturaren menpe dagoela. Hala ere, neurri tekniko eta politikoak ezarriko badira ere, Joan Paulo II.aren hitzekin bat eginez, haxe baieztatzea dagokigu: “oztopo nagusien gaitzitzea erabaki moral hutsei esker baizik ez da lortuko eta horiek, fededunentzat eta batez ere kristaudentzat, fedearen oinarrietan inspiratuko dira, jainkozko graziaren laguntasunarekin”²⁸.

*Egoerak kultura
eraberritzea eskatzen
du, oinarritzeko balioak
berraurkitzea eta
zerbait berria
proiektatzea.*

Hau ez da errealitatearen ikuspuntu mingotsa, ezta gutxiago ere, elkartasuna eta “giza alderdiari lehentasuna” ematea oinarritzat dituen guztion hiria eraikitzen hasteko funtsezko printzipioa baizik. Benedikto XVI.aren bat eginik, “errealismo, konfiantza eta itxaropenez onartu behar ditugu kultura eraberritze sakona eta sakoneko balioak berraurkitzea ezinbesteko dituen munduaren egoerak eskatzen dizkigun erantzukizun berriak (...). Honela, krisia *berriren berri bereizteko eta proiektatzeko aukera* bihurtuko da. Oraingo zailtasunei ikuskera honetatik aurre egitea komeni da, konfiantzaz eta ez etsimenduz”²⁹.

²⁷ *Sollicitudo rei socialis*, 36.

²⁸ *Ibid.*, 35.

²⁹ *Caritas in veritate*, 21.

III. AZTERTU BEHARREKOA

pentsetzeko eta sortzeko duen gaitasuna *Krisialdi hau Doktrina Sozialaren eta, guztion ongizateari begira, krisia gainditzeko ahaleginen diharduten gizabanako eta erakundeen jarduerarako irizpide moral oinarritzko eta bateratuetatik argitu nahi dugu egoera hau.*

Auzirik garrantzitsuenak baloratuko ditugu aldaketa batzuk proposatzeko.

Agertu izan diren auzirik garrantzitsuenak baloratuko ditugu orain, asko sakontzeko asmorik gabe eta, aldi berean, jarrera eta jokaera aldaketa batzuk proposatzeko ditugu.

Giza ekonomiak oinarri etikoa behar du.

*** *Ekonomiaren oinarri etikoa***

14. Une hauetan, benetan gizatiarra den ekonomia izango badugu, etikoki bideratuta egon behar duela berrestea nahiko genuke. Benedikto XVI.ak dioen bezala, “sektore ekonomikoa ez da ez etikoki neutroa ezta berez bihotz-gogorra edo antisoziala ere. Gizakiaren jardura da eta, hain zuzen ere giza jardura delako, etikoki artikulatu eta instituzionalizatu beharra dago”³⁰.

Elizaren Doktrina Sozialak oinarri batzuk ematen ditu gizarte bizitzan giza duintasuna garatzeko

Berariazko berezitasunetik, Elizak bere doktrina soziala garatu izan du bi gizalditan zehar, gizarte bizitzarako oinarri nagusiak ezarriz: guztion ongizatea, ondasunen banaketa unibertsala, subsidiarotasuna, partaidetza eta elkartasuna³¹. Oinarri hauek, giza duintasunari dagozkion bizitza sozialeko balioak –egia, askatasuna, zuzentasuna, bakea eta maitasuna- lortzeari eta zaintzeari begira zuzentzen dira, maitasuna delarik gainerako balio eta bertute guztiak elikatzen dituen.

Ekonomiak gizaki osoaren eta gizaki guztien esanetara egon behar du.

Ekonomia bizitza, beraz, oinarri horietatik zuzenduko da eta aipatutako balioak lortzen saiatuko da, abiapuntu argi bat kontuan harturik: ekonomia gizaki osoaren eta gizaki guztien esanetara dagoela. Oinarri nagusi honek Jainkoak bere irudi eta antzeko sortutako pertsonaren nagusitasun eta duintasuna eta gizaki guztien arteko erabateko eta funtsezko berdintasuna ditu euskarriztat. Bere barnean, oraingo egoera honetan bereziki ezarri beharko liratekeen hiru puntu aztertzea komeni da: guztion ongizatea, ondasunen banaketa unibertsala eta elkartasuna.

• *Guztionez ongizatea*

Guztionez duintasuna ekarriko duten gizarte bizitzako baldintza batzuk lortzean datza guztionez ongizatea.

15. Joan XXIII.aren arrastoari jarraituz, honela definitu zuen guztionez ongizatea Vatikanoko II. Kontzilioak: “elkarteei eta hauetako kide bakoitzari berezko bikaintasunaren lorpen beteago eta errazagoa ahalbideratzen dien gizarte bizitzako baldintzen multzoa”³². Beste era batera esanda, guztionez ongizatea jadesteko, merkatua eta ekonomia ez dira merkatutik eta ekonomiatik eta merkaturako eta ekonomiarako antolatuko, gizaki guztiek, bakarka zein gizarte mailan hartuta, beren giza duintasunetik eratorritako alderdi guztiak osotasunean bizi izatea lortzeko baizik.

³⁰ *Caritatis in Veritate*, 36.

³¹ *Elizaren Doktrina Sozialaren laburpena*, 164-196.

³² *Gaudium et spes*, 26.

Gizabanako eta gizatalde guztien erantzukizuna da guztion ongizatea lortzea.

Guztion ongizateak gizabanako eta gizatalde bakoitzaren ardura eta helburu izan behar du eta ez botere publikoena bakarrik, hauei zuzenean badagokie ere hura lortzea eta bermatzea. Ez da bidezkoa, beraz, gizarte eragile bakoitza bere logika eta interesen arabera gobernatzea, botere publikoen esku utziz, bigarren une batean, nolabaiteko arbitrajea eta interesen konpentsazioa. Errezeta hori da gatazkarako, norgehiagokarako eta, azken batean, gizartearen porroterako biderik onena.

Guztion ongizatea bermatzeko, bidezkoa da ahulenen duintasuna bereziki kontuan hartzea.

Adiera ebanjelikoan “txikienen aldeko jarduera”³³ den oinarri honen alderdi bat dago. Gizakiaren duintasuna egundoko garrantzia duen ondasun erregulatuak bada, beren duintasun abestearen pare jartzea ziurtatzeko, txikienei bereziki lagundu behar zaiela kontuan hartzen ez duen gizarte, gizarte bidegabea litzateke eta, ondorioz, ez luke benetako bakerik izango.

Guztion ongizatea giza familia osoari dagokio, gizaki guztiei, herrialde batekoak zein besteak izan.

Hona hemen garaiotan aparteko nabarmentasuna duen beste alderdi bat: guztion ongizate hori zatiezina dela, hau da, giza familia osoari dagokiola eta ezin dela mugatu ez herrialde bakar batera ezta multzo batera ere³⁴. Horregatik, Elizaren Doktrina Sozialak mundu mailako aginte motaren bat ezarri beharra aipatzen du behin eta berriro, subsidiarotasuna kaltetu gabe, pertsona guztien –herrialde batekoak zein besteak izan- ongizatea susta eta berma dezan³⁵.

- *Ondasunen banaketa unibertsala*

Jabetza pribaturako eskubidea ez da absolutua; guztion ongizateari lotuta dago.

16. Ondasunen jabetza pribatua ziurtat jotzen duen gurea bezalako kulturaren, guztiz beharrezkoa da jabetza hori absolutua ez ezik funtzionala dela nabarmentzea. Bibliako terminoetan, Jainkoak bere kultura guztientzat sortu zuen mundua, Jaungoikoaren irudi izateari zor zaion duintasunez bizi daitezen guztiak. Hortik ondorio praktikoak eratortzen dira.

Denok dugu duintasunez bizitzeko beharrezkoak diren ondasunak jabetzeko eskubidea.

Lehenengoa, inori ez zaiola itxi behar duintasunez bizitzeko beharrezkoak diren ondasunak jabetzeko bidea. Eta gizakiok berdina garenez duintasunari dagokionez, den-denontzat eta baldintza berdinetan egon behar dute eskuragarri ondasunok eta denok izango dugu horien jabe izateko eta administratzeko eskubidea, guztion ongizateari kalterik egin gabe.

Txiro eta baztertuen giza duintasuna zaindu behar dugu bereziki.

Orain arte esandakoari lotura, Bibliak behin eta berriro diosku kaltetuenei jaramon egin behar zaiela eta horrela “alargun, umezurtz, txirotu eta kanpotarraren” aldeko jokaera indibiduala zein kolektiboa Jainkoaren borondatearen arabera bizimoduaren froga-harri bihurtzen dira³⁶. Horregatik, doktrina sozialak hauxe dio: “ondasunen banaketa unibertsalaren printzipioak, txiroei, era bateko edo beste

³³ Mt 25.

³⁴ “Bereko duintasun bera duten izakiak elkartzen dituen giza familiaren batasunak guztion ongizate unibertsala eskatzen du”. Eliza Katolikoaren Katixima, 1911 zenb.

³⁵ *Gaudium et spes*, 84; Joan XXIII.a. *Pacem in terris*, 321; Benedikto XVI.a, *Caritas in veritate*, 57.

³⁶ Ir 22, 21-22; Dt 14, 29; 26, 12; Is 1, 17; Jr 5, 28; 22, 3; Za 7, 10; Mt 25, 31-46; St 1, 27.

marjinazioa jasaten dutenei eta, edozein kasutan ere, hazkunde egokia galarazten dieten bizi baldintzak dituztenei aparteko arreta eskaintzea exijitzen du”³⁷.

- *Elkartasuna*

Gizarte balioen artean, elkartasuna positiboki nabarmentzen da...

17. Gehienok onartutako balio-eskalan, elkartasunak postu nabarmena du. Orokorrean, naturaltasunez, nabarmentasunez eta sarritan heroikotasunez gauzatzen da familia esparruan eta baita, neurri handi batean, adiskidetasunezko lokarriez lotuta dauden pertsonen artean. Bereziki itxaropentsua da gazteetako askok eta askok kaltetuenean aldeko elkartasun hori gauzatzeko bide berriak etengabe arakatzen dihardutela. Zuzenago, baketsuago eta gizatasunari dagokionez jasangarriago nahiko luketen munduaren aurrean, salaketaz eta inkonformismoz oihu egiten dutela adierazten du horrek.

...bazterturik gabeko giza familia eraikitzeke nahia...

Benetako giza izatasunari erantzuten dioten sentimendu eta irrika sakonen gainean finkatzen da egarri hori: inolako bazterturik gabeko giza familia eraikitzeke deia; erabateko giza berdintasuna gauzatzea; giza bizitza ororen alderdi sozial eta elkartua adierazten duen besteekiko harmonia bilatzea.

...gizarte gero eta globalizatuagoan.

Globalizazioa eta elkarrekiko mendekotasuna gero eta nabarmenagoak diren munduan, guztiz premiazkoa da hazkunde bizia maila etiko-sozialean ere, “horrela, gaur egun gauzak alde dituzten herrialdeetan beraietan ere ondorio negatiboak izango lituzkeen planeta osoan hedatutako bidegabeeko egoeraren ondorio negargarriak saihesteko”³⁸.

- * *Guztion ongizatearen zerbitzura dagoen merkatua*

Botere publikoek merkatu askatasuna arautu behar dute guztion ongizatearen zerbitzura egon dadin...

18. Krisiak erakutsi digunez, merkatuak, bere kabuz bakarrik, eraginkortasunik ez izateaz gainera, jarduera ez-moralak susta ditzake eta hondamendi orokorra eragin. Kontua ez da merkatuaren alderdi mesedegarri eta beharrezkoak ukatzea; hala ere, ez da egia merkatuak erabateko askatasunez, inolako interferentziarik gabe jardutea denik biderik egokiena guztion ongizatea jadesteko. Inoiz ez da existitu, ezta existituko ere, merkatu hain libre eta perfekturik, hain zuzen ere beren makaltasun eta interesen menpe dauden pertsona eta taldeek burutzen dituztelako merkatuko jarduerak. Honengatik bakarrik bada ere, guztion ongizatearen aurkako jarduera kaltegarri oro galarazi behar duten botere publikoek bermatu behar dute merkatuko joko zuzena.

...ez Estatu bakoitzean bakarrik, nazioarte mailan baizik.

Merkatuan jarritako larregizko konfiantza honi ez zioten korrante teoriko batzuek bakarrik eusten, merkatu finantzarion kasuan, finantza globaletan eragin erabakigarria zuten herrialde jakin batzuetako agintari erregulatuak batzuen jardueran zuelako babes. Arazoa okertu egin zen nazioarteko finantza erakundeek ez zutelako ez mandaturik ezta tresna egokirik ere merkatua arautzeko eta

³⁷ Elizaren Doktrina Sozialaren laburpena, 182.

³⁸ Elizaren Doktrina Sozialaren laburpena, 192.

kontrolatzeko eta ez zutelako krisiaren zantzuak behar bezala irakurtzen jakin³⁹.

Dena dela, krisi honek goitik behera zalantzan jarri du, “arriskuari prezio zuzena emateko” eta “autorregulatzeko eta guztiontzako garapena sortzeko” duen egokitasunari dagokionez, merkatuan jarritako konfiantza ia itsua⁴⁰. Bere funtzionamendu onak, ezinbestekoa konfiantza eman dezan, “Estatuaren eta, egokia den lekuetan, nazioarteko elkartearen egiteko arduratsua eskatzen du, gardentasun eta zuhurtasunezko arauak ezarri eta betearazteko”⁴¹.

Merkatuen erregulazioan herrialde guztiek bidezketasunez parte hartzea bermatu behar da.

Norabide honetan, herrialde bakoitzean edo herrialde-multzo bakoitzean gauzatu beharreko berrikuntzez gainera, nazioarteko finantza erakundeen funtzio, fondo operatibo eta erabaki organoen inguruan martxan jarritakoetan sakondu beharra dago. Erreforma horren helburua herrialde multzo guztien presentzia egoki eta bidezkoa, arau finantzario orokorren bateratasuna eta finantza merkatuaren funtzionamendu zuzena ezarritako arauen arabera gainbegiratzeko aginte nahikoa bermatzea da⁴².

Enpresari eta beharginek hobeto uztartu behar dute beren parte hartze sortzailea ekonomia pribatuan

*** Parte hartzeko ekonomia**

19. Gaur egungo ekonomia ekimen pribatuan oinarritzen da nagusiki, sektore publikoaren pisua aipagarria bada ere ekonomia garatu deitutakoetan. Enpresari erabakitzailen eta langile betetzailen arteko bereizte tradizionala krisian dago. Erakundeek ia aho batez diote beren kapital nagusia bertako kide nagusi diren pertsonak direla baina zailtasun franko dute hori praktikara eramateko. Erakunde gutxiak lortzen du bere beharginak iraunkortasunez motibatzea, hobekuntza eta erabakiak hartzeko prozesu iraunkorretan txertatzea eta beren gaitasun sortzaileak askatzea.

Gaur egun, enpresen hazkunde eta garapena gero eta globalagoa da...

Beste alde batetik, azken hamarkadetako gizarte-ekonomia dinamikak kontzentrazio ekonomiko globalerako prozesua azkartzen dihardu. Finantza, industria eta zerbitzu enpresa erabakigarrienak gutxitu egin dira kopuruari dagokionez eta gehitu bolumen eta proiektzio orokorrari dagokionez. Sektore askotan antzeman daitekeen gertaera orokorra da.

eta epe laburrera errentagarritasuna bilatzen duten inbertsioek mugikortasun handia dute...

Horrekin batera, une bakoitzean errentagarritasunik handiena lortzea irizpide inbertitzailetzat duten eragile anonimo batzuen pisu gero eta handiago nabarmentzen da. Hori dela-eta, beren inbertsioetan ez dago ez konpromisorik ezta iraunkortasunik ere, epe laburrera errentagarritasuna bilatzearen berariazko mugikortasunaz markatuta daudelako. Oker geundeke eragile anonimo horiek gure bizitzekin inolako zerikusirik ez dutela pentsatuko bagenu. Beren erretiroa

³⁹ Ikusi gabezia hauek aipatzen dituen Nazioarteko Moneta Fondoaren jarduerari buruzko txosten hedatu berria: http://imf-ieo.org/eval/complete/pdf/01102011/Crisis_Main_Report_SPNISH.pdf

⁴⁰ Vatikanoa, *Nazioarteko finantza sistema...* 3c.

⁴¹ *Ibid.*, 3c.

⁴² Ikusi, honen hartitik, Joaquin Almunia eta Michel Camdessus en ekarpenak Elkargin. *Aterako gara krisitik! Nola eta noiz*. Donostia. 2009; Nazioarteko Moneta Fondoak martxan jarritako berrikuntzei dagokienez, ikusi <http://www.imf.org/Externa/spanish/pubs/ft/survey/so/2020/new110510bs.pdf>

ziurtatzeari edo berau osatzeari begira, behargin askoren aurrezkiak kudeatzen dituzten pentsioen fondoak dira aipatutako eragile horietako bat⁴³.

...krisialdi honen
sortzea ekarri duelarik.

Honelako jarduerak enpresa eta ekonomia bizitzaren sendotasunari eusteko ezinbesteko diren epe luzerako neurriak hartzea oso zail egiten dutela esan dute makina bat aldiz teoriko, analista eta gestoreek. Epe laburrera, batez ere esparru finantzarioan, mozkinak lortu beharrak dakarren presioa izan da krisiaren eragilerik nagusienetakoa. Horregatik, nahitaezkozkat jotzen dira inbertsioak arduraz kudeatzeko era berriak, esate baterako, “fondo etikoak” edo “banka etikoa”, garrantzi erlatibo eskasa izan eta definizio eta ebaluazio hobea behar izan arren, jarraitu beharreko bide berria markatzen dutelako⁴⁴.

Enpresetako
aurrerapen
teknologikoen ere ez
dute parte hartzeko
ekonomia bultzatzen
lagundu.

20. Beste alde batetik, gaur egungo gizartearen eta ekonomiaren aparteko dinamotasunak aurrerapen teknologikoen aukera berriak ezartzen dituzten eta eskaera gero eta zorrotzago, anitzago eta sofistikutuagoari erantzuten dioten enpresa eta sektore edo nitxo ekonomiko berrien sorkuntza sustatzen du etengabe. Sorkuntzarako eta aukera berrietara zabaltzeko eragile hau sartuta ere, nabarmena da gure ekonomia, zalantzarik gabe dinamiko eta aldakorra izanik ere, ezin dela parte hartzeko ekonomiatzat hartu, goian aipaturiko arrazoiengatik: eragile finantzario anonimo boteretsuen pisu gero eta garrantzitsuagoa, beren kontzentrazio eta globalizazio gero eta handiagoa eta zailtasunak, gizakiek dagokien eginkizuna bete dezaten. Arazo hauek bereziki kezagarriak dira gure sistema ekonomikoaren ikuspuntu, helburu eta funtzionamenduaren sustraitik bertatik eratortzen direlako.

Jarduera ekonomikoan,
gizakiak ezin ditugu
“ekoizpen eragile”
hustzat hartu.

Doktrina Sozialak gizakia jartzen du jarduera ekonomikoaren bihotzean eta horrek aberastasun ekonomikoa zuzen banatzea baino askoz gehiago dakar berarekin. Hauxe da sakoneko arazoa: jarduera ekonomikoaren arrakasta errendimendu edo mozkinaren arabera neurtzen dela eta, ondorioz, hori bilatzeak berez bihurtzen dituela gizaki enplegatuak arrakasta horren zerbitzura dauden “ekoizpen eragile”.

Enpresa osatzen duten
guztiek bere jabetza,
kudeaketa eta
mozkinetan parte
hartuko balute,
errazago litzateke
krisialdian
moldatzea.

Honen haritik, Doktrina Sozialak aipatu zuen *Quadragesimo anno* entziklikan enpresa baten partaide ziren guztien partaidetza jabetza, kudeaketa eta mozkinetara luzatzearen komenigarritasuna. Vatikanoko II. Kontzilioak nahiz Joan Paulo II.a aita santuak sakon aztertu zuten partaidetza mota honek, sakonean, gizakia jarri nahi du jarduera ekonomiko guztien erdian, bere gaitasun guztiak garatzea ahalbideratuz⁴⁵. Gure artean, eredu kooperatiboak erakutsi izan digu zabalera honetako partaidetza, aberastasuna sortzeko gauza izateaz gainera, krisiz jantzitako egoeretara moldatzeko gai ere badela,

⁴³ Aurrerago aipatuko ditugu inbertsioak kudeatzeko bide berriak. Batzuk martxan daude, esate baterako, “fondo etikoak” edo “banka etikoa”.

⁴⁴ *Caritas in veritate*, 45.

⁴⁵ *Quadragesimo anno*, 65; *Gaudium et spes*, 67-69; Joan Paulo II.a, *Laborem exercens*, 14; *Laburpena*, 281.

beharrezko sakrifizioak onartuz ordainsari eta lanaldiaren arloan eta lanpostuak babestea bilatuz.

Jarduera ekonomikoan ikuspuntutik aldatzeak elkartasunezko giza harreman berriak sortuko lituzke.

21. Benedikto XVI.arentzat, gizakiak jarduera ekonomikoan nagusitasuna izango badu, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko orokorraren eta enpresa bakoitzaren antolakuntza eta jardueraren ikuspuntu aldaketa. Hauxe diosku horren inguruan: “gizatasuna, adiskidetasuna eta gizartekoitasuna, elkartasuna eta elkarrekikotasuna benetako ezaugarritzat dituzten harremanak bizi daitezke, baita jarduera ekonomikoaren barnean ere eta ez kanpoan edo bere «ostean» bakarrik”⁴⁶.

Enpresa eredu eta mota gehiago lituzkeen ekonomia gizatiarragoa eta guztion ongizateari irekiagoa izango litzateke.

Gainera, aita santuak, gizatiarra eta parte hartzekoa izan dadin, artikulatua izateko eskatzen dio ekonomiari eta langilea sortzaile bezala integra dezala, “bere-berea den zerbaitetan lan egiten diharduela” senti dezan. Beste alde batetik, balio anitzekoa izan dadila ere proposatzen du, guztion onerako beraien artean elkarrekintzan jardungo duten enpresa ereduak konbinatuz: publikoa, pribatua, irabazi-asmokoak, irabazi-asmorik gabekoak, ekimen sozialekoak, ekonomia aurreratutakoak, garapen bidean daudenetakoak, e.a. Horrek bere gizatiartzerako, aberasterako eta guztion ongizatearen aldeko ekarpenerako izango da⁴⁷.

Garapena positiboa da, aurrerapenak giza duintasun eta izatasunaren berariazko gaitasun guztiak hedatzen dituelako.

*** Garapenaren ideologiatik harago**

22. Hobetzeko ahalegina da gizakiaren ezaugarri nagusienetakoena eta berariazkoenetakoena, bere zorientasun irrikaren adierazpena delarik. Aurrerapen eta garapena deitzen dugunaren oinarrian dago. Argia da gure beharrei hobeto erantzutea eta askatasuna, zuzentasuna, bakea eta elkartasuna finkatzea ahalbideratzen duten ezagueraren eta gizarte antolaketarako bideen aurrerapenaren ontasuna. Nabarmena da, halaber, gizakiaren duintasun eta izatasunak gordetzen dituzten gaitasun guztien mailakako hedapentzat ulerturiko garapenaren balio positiboa.

Aurrerapenaren eta garapenaren alderdi positibo honek beste alderdi ilun eta negatibo bat izan duela aipatu genuen *Berri ona bizi eta iragarri gaur egun* 2007ko gure pastoral idazkian:

Garapenaren alderdi positiboa lausotzen duten gertaera eta eragileak izaten dira.

Normalean giza gaietan gertatzen den bezala, mendebaldeko kultura modernoaren alderdi positibo hau argi eta garbi negatiboak diren beste elementu batzuek lausotzen dute: beste herri batzuk kolonizatzearen eta esplotatzearen ondorioak, joan den mendean bizi izandako gerra eta genozidioen izugarrikeriak, munduko gaur egungo alde izugarrien amildegia eta, orokorrean, alderdi espiritual eta komunitarioak murrizten eta bazterrera uzten dituen eta denok ezagutzen ditugun ondorio, gabezia eta gaixotasunak dakartzan indar eta gogobetetzearen kulturaren ezarpena.

⁴⁶ *Caritas in veritate*, 36.

⁴⁷ *Ibid.*, 41.

Gaurko kulturak benetakotasun edo erradikalitasun handiagoa eskatzen dio fedeari eta, aldi berean, bere alderdi espiritual eta komunitarioa pribatizatzen du.

Ikuspuntu erlijiosotik, gaur egungo kulturak, bere alderdi kritikoagatik eta burujabetzea eragiteagatik, lagundu egin du fedearen bizipena, bakarkakoa zein elkartekoa, garbitzen, benetako eta erradikalago bihurtu beharra sentiaraziz. Era berean, hala ere, tradizioetik jasotako kultura-moldeetatik burujabe izateak, aurrera egiteko Jainkoa ez dela beharrezkoa (eta gaitz erdi etsaitzat hartzen ez bada) sentitzeak, eta arrakasta, gogobetetasun eta oparotasunaren kulturak dezente zapaldu eta pribatizatu dituzte gure alderdi espirituala eta komunitarioa⁴⁸.

Aurrerapenaren kontzeptua bera aztertu behar dugu eta norabide berria eman.

23. Ezinbestekoa da, beraz, aurrerapenaren eta garapenaren kontzeptuaz beraz hausnartzea, gaur egungo bere praktika ebaluatu eta era positiboan berbideratzeko. Horretarako, beharrezkoa da kontzeptu hori gizakiaren oinarrian bertan sustraitzea, idolatratu beharreko ideologia bihur ez daitezen.

Guztion duintasuna gauzatzeko mesedegarrienak diren baldintzak sortzera garamatzen bokazio bezala ulertu behar dugu garapena.

Lehenengo eta behin, garapena **bokaziotzat** ulertu behar dugu eta horrek bere iturrira, hau da, bere antz eta irudiko sortu gaituen Jainkoarengana Berarengana, igortzen du. Bokazio erradikal horrek garamatza geure duintasunaren osoko garapenerako baldintza gero eta hobeak sortzera. “Jainkoaren asmoetan, gizaki oro bere aurrerapena sustatzera deituta dago, gizaki orenen bizitza bokazioa da-ta”, zioen Paulo VI.ak⁴⁹. Horregatik, Benedikto XVI.arentzat, “garapenik gabeko munduan pentsatzeak gizakiarenganako eta Jainkoarenganako mesfidantza adierazten du”⁵⁰.

Garapenak gizakien alderdi material, arrazional eta espirituala hartu behar ditu.

Gizaki osoa hartzen duela da benetako garapenaren ezaugarrietako bat. Orokorrean, garapena, kalitatearen eta bizitza materialaren mailaren adierazleen bitartez neurtzen da; hala ere, gizakiak arrazoidun gaitasunak eta izatasun espirituala ere baditu. Hori dela-ta, “gizakiaren benetako garapena gizaki osoari bere alderdi guztietan dagokio era bateratuan”⁵¹. Horregatik, “betiereko bizitza ikusmiran ez badugu, mundu honetako giza aurrerapena arnasarik gabe geratuko da (...) edukitzearen gehikuntzara murrizteko arriskuarekin”⁵².

Herrialde eta pertsona guztientzat mesedegarri den garapena da benetakoa.

Garapena **pertsona guztientzat** dela da hirugarren aipamena. “Ezberdintasun mingarrien eskandaluaren”⁵³ aurrean, guztion ongizatearen, ondasunen banaketa unibertsalaren, parte hartzearen eta elkartasunaren eskakizunen arabera, ezinezkoa da benetako garapenaz hitz egitea, berau, sustraitik, herrialde eta gizabanako guztiei berdintasunez parte hartzeko eta onura ateratzeko aukera emango dien mugimendu bezala hartzen ez bada. Benedikto XVI.ak

⁴⁸ Iruña eta Tutera, Bilbao, Donostia eta Gasteizko gotzainen pastoral idazkia, *Berri Ona bizi eta iragarri gaur egun*. 2007, III. 1.

⁴⁹ Paulo VI.a. *Populorum progressio*, 15. zenb.

⁵⁰ *Caritatis n veritate*, 14.

⁵¹ *Populorum progressio*, 14.

⁵² *Caritatis n veritate*, 11.

⁵³ *Populorum progressio*, 9.

desberdintasunen gaur egungo nondik norakoez ohartarazten du, ondorengo hau dioenean: “herrialde aberatsetan, gizarte kategoria berriak txirotu egiten dira eta pobretasun berriak sortu. Ingururik pobreenetan, talde batzuek ‘supergarapen’ xahutzaile eta kontsumistaz gozatzen dute, gizatasuna erabat kentzen duten miseriazko egoera iraunkorrekiko onartezineko kontrastean”⁵⁴.

Guztion laguntza arduratsuarekin, izadia errespetatzen, zaintzen eta suspertzen duen garapena bakarrik izango da jasangarria.

Garapenaren laugarren ezaugarri batek **jasangarria** izan behar duela diosku. Bistakoa da garapenak, industria iraultzaren garaietatik gaur egunera arte ez duela kontuan izan oreka ekologikoa eta, horren ordezt, hazkunde material eta ekologikoa bilatu duela kosta ahala kosta, inguru naturalerako ondoriozko kaltearekin. Asko aurreratu beharra dago oraindik hondatzea areagotzea galaraziko duten eta, ahal izanez gero, inguru natural orekatua berreskuratzea eragingo duten neurri politikoen bidean. Hala ere, neurri horiek ez dira nahiko izango, gure kasua bezalako herrialderik aberatsenetan, gure bakarkako eta familiako bizimodua eta kontsumo ohiturak aztertzen ez baditugu. Ezin dugu oparotasunaren eta “erabili eta botatzearen” kulturaren kokatuta jarraitu, dena mugarik gabe ordezkatzeko posible izango balitz bezala⁵⁵.

Guztiok, Aita Jainko beraren seme-alaba izanik, senideago egiten gaituen garapena da benetakoa.

Azkenik, benetako garapenaren muina **karitatean** dagoela konturatu behar dugu. Benedikto XVI.ak dioen bezala, “gizarte gero eta globalizatuagoak gertukoago egiten gaitu baina ez anaiago”. Aita santuaren ustez, giza arazoak berdintasuna onartzera eramane gaitzake, “baina ez du senidetasuna sortzea lortzen. Hau Jainko Aitarengandik, maite izan gaituen Lehenengoarengandik, Semearen bitartez senide karitatea zertan datzan irakatsi digunarengandik sortzen da”⁵⁶.

Krisia gainditzeko, kultura aldaketa esanguratsuak sustatu behar ditugu.

*** *Gizakiaren eta giza elkartearen aldeko kulturarentz***

24. Krisia ikuspegi teoriko desegokien, akats teknikoen eta hutsegite etiko larrien konbinazioaren emaitza izan bada, nahitaezkoa da eragile hauen eta gaurko kulturaren arteko lotura aztertzea. Orokorrean, “gauzek ezin dute orain arte bezala jarraitu” eta “aldaketa garrantzitsuak egin behar dira” esaten denean, kultura ere kontuan hartzen da.

Kultura testuinguruari esker sustraitu dira krisia sortu duten eragileak...

Makina bat erakundek eta ekonomia mundukoa dituk aipatu du krisiaren kultura sustraitzea. Ondorengo hitzok dira horren adierazle garbi:

Nola gertatu zen hau? Nola? Asko hausnartu dut honen inguruan eta oinarritzko erantzun bakarra aurkitzen dut: jokaera horiek kultura testuinguru jakin batean –non diruaren itzelezko lilurak itsutasun kolektiboa eragin eta zaintze guztiak ezereztuko zituzkeen- sustraitutzat aitortu ezkerro baizik ezin da azaldu gertatutakoa (...) Gizakia bere funtzio ekonomiko hutsera

⁵⁴ *Caritas in veritate*, 22.

⁵⁵ *Elizaren Doktrina Sozialaren laburpena*, 461-465.

⁵⁶ *Caritas in veritate*, 19.

murriztu, beheratu zen. Kontsumoa jomuga bihurtu zen. Diruzalekeria, maltzurkeriaz, zuzentzat jo zen politika arloan, kultura kolektiboa bere egin zuen. Denok, nolabait, men egin genuen gure herrialdeak beren borondatez murgildu ziren kultura horren aurrean⁵⁷.

Bilboko Gotzainek ere antzerako zerbait zioten 2008an:

Krisiaren errua danok neurri berdinean izan ez arren, bere garrantzia ez litzateke hain handia izango, denok nola edo hala, gurata edo gura barik, bertan parte hartuko ez bagenu. Nahasmendu hain sakona edonon zabaldua dagoen kulturak edo bizimoduak bakarrik egin dezake posible. Horren arabera, ondo izatea bilatu nahi da etengabe, ahalik eta gehien irabaziz ahalik eta eperik laburrenean. Horrelako kultura batek zuzenketa sakonak behar ditu, egoera soziala eta etikoa larria eta eutsiezina bihurtu orduko⁵⁸.

...horregatik, bertan beharrezkoak dira erreforma sakonak.

Gaur egungo kulturak ezaugarri anbiguoak eskaintzen ditu harreman eta jokaera indibidual eta kolektiboetan.

Soziologoek, nahiz psikologoek nahiz ekonomistek nabarmentzen dutenez, gure kulturak gure harremanetan eta jokamoldeetan eragiten duten osagai batzuk ditu⁵⁹. Elementu guzti hauek beren alderdi positiboa eta alderdi negatiboa daukate, giza errealitatearen eta izatasunaren anbiguotasuna islatuz, gari eta sasiaren parabola ebanjelikoak irudikatzen duen bezala⁶⁰.

Gizakiei dagokien duintasun bera baieztatzeak beren burujabetza bultzatzen du baina indibidualismoa dakar.

25. Modernitatearen lorpen pertsonal eta sozialik garrantzitsuenetakoa gizakiaren baieztape eta autonomia gero eta handiagoa izan da. Aurreko kultura taldekakoagoa zen, kontrol sozial handiagokoa eta, bertan, jomuga pertsonala estu lotuta zegoen jatorrizko gizarte baldintzara. Kultura modernoak askatasun maila eta gizarte aurrerapenerako gaitasun handiagoa eman die pertsonari, hezkuntzaren, aukera berdinen ematearen eta jakintzaren eta teknikaren aurrerapenen bitartez. Indibidualizaziozko ezaugarri positibo honen alderdi iluna kultura indibidualistaren aurrerapenean dago, pertsona bakoitzak errealitatearen muintzat jotzen duelako bere burua eta bere bizitzako erreferentzia nagusi bihurtzeko joera duelako.

Indibidualismoak gure ekintzen gizarte ondorioetan dugun erantzukizuna aitortzea galarazten du.

Indibidualismoak ondorio esanguratsuak ditu esparru etikoan. Horietako bat, askatasunaren eta erantzukizunaren arteko loturaren desitxuratzea da. Honetan laburtuko litzateke: “inork ezin dit esan zer egin behar duan” eta “ni ez naiz nire egintzen eraginen erantzule”. Paul Ricoeur filosofoak horren inguruan ohartarazten gaitu “gure garaikideek beren burua beren egintzen egiletzat aitortzeko ez ezik, egintza hauen ondorioen erantzuletzat aitortzeko duten zailtasuna, batez ere norbaiti kalte egin diotenean; hau da, azken batean,

⁵⁷ Michel Camdessus. *Krisiaren kultura sustraiak eta paradigma berriaren bilaketa*. Hitzaldia Rafael del Pino Fundazioan. Madril. 2010ko otsaila.

⁵⁸ *Neurritasunez eta eskuzabaltasunez, justizia eta maitasunaren bidetik*. Eguberrietako mezua. 2008.

⁵⁹ Ik. Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainak. *Gure kristau elkarteak berrizatu*. Garizuma eta Pazkoko pastoral idazkia. 2005. 25-29 zenbakiak.

⁶⁰ Mt 13, 24-30.

munduaren sufrimenduari beste apur bat gehitzen diotenean”, azpimarratzen duenean⁶¹.

Krisiak zorrotz erakusten digu ez garelako isolatuta bizi eta ezin dugula besteekin dugun erantzukizuna saihestu.

Etika indibidualista eskas hau dago indarrean dagoen krisi honen hutsegite etiko larri askoren eta desbideratze teorikoak eta akats tekniko nabarmenak eragin zituen ikuspuntu galtzearen oinarrian. Benetan pertsona izatearen benetako esanahian sakondu beharra da krisi honen irakaspenik handienetakoa. Eraiki ote dezakegu mundu zuzen eta baketsurik bakoitzak bere burua bere jardueren irizpide nagusizat hartuz? Ez ote dago indibidualismoa gure gaitz askoren sustraian? Ez ote da egia senidetasunik gabe ez dagoela benetako lekurik ez askatasunerako ezta berdintasunerako ere? Krisi hau dei serioa da, arazoei sustraitik aurre egin diezaiegun eta gure izateko eta jokatzeko modua alda dezagun. Ez gara eta ezin gaitezke beren gogobetetzea eta onura bilatzen duten izaki isolatuak izan; gure bizitza estu lotuta dago pertsona guztien bizitzari eta erantzukizun argiak ditugu guzti horiekiko.

Geure egoerari eustea eta berau hobetzea baizik bilatzen ez duen “gogobetetzearen kultura” deitutakoak elkartasuna ahultzen du.

26. “Gogobetetzearen kultura” deitu izan dutenak ere biziki kezkatzen ditu azkenaldian pentsalari eta hezitzaileak. Termino hau sortu zuen ekonomista eta pentsalari ospetsuak duela hogeit hamar urte inguru esan zuen gogobetetzearen kultura hori “suntsipen finantzariarako baimena” zela. Suntsipen hori orduan gertatzen ari zela zioen autoreak eta harrigarria bada ere, egoera horren arazoien gogoeta eta azterketak ia hitzez hitz ezar dakizkioke gaur egungo krisiari⁶².

Sakoneko arazoa, azken batean, kultura horrek guztion ongizatearen eta elkartasunaren oinarriak ahultzen dituela da eta, gainera, jokaera kaltegarria sustatzen duela epe ertainera: gauzak alde ditugulako asebeterik gaudenok gure egoerari eustea eta egoera hori hobetzea nahi dugu, gizarte zein ekonomia mailan atzean gelditu direnenganako begiramenik gabe.

Zenbateraino dugu parte kultura horretan?

Indibidualismoari estu lotuta dagoen kultura honetan dugun partaidetzaz serio galdetu behar diogu geure buruari. Ez ote da egia, joan den gizaldiko 80ko hamarkadako gure aurreko krisian gertatu zen bezala, krisiaren eragina jasaten dutenen eta jasaten ez dutenen arteko banaketa larria gertatzeko arriskua dagoena? Ez ote da egia geure gogobetetze mailei eusten ahalegintzen garena, gure inguruko asko eta asko gorriak ikusten ari den bitartean? Ez ote da egia jarrera horrek arazoak korapilatzen eta gerorako itxaropenak zapuzten dituenak?⁶³

Gure egoeratik, autotsegina eta besteen

Gure elizbarrutietan eman daitekeen “gogobetetzearen kulturaren” molde baten inguruan aparteko arreta jarri nahi dugu. Nafarroak zein Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak beste autonomia erkidego

⁶¹ Paul Ricoeur, “erantzuna nire kritikoei”, *Fractal* 13. zenb., apirila-ekaina, 1999, 3. urtea, IV. alea, 129-137 or.

⁶² John Kenneth Galbraith. *Gogobetetasunaren kultura*. Ariel. Bartzelona, 1992, 5, kap.

⁶³ Arazo horiek, Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gateizko gotzainek *Kristauaren jarrera gaurregungo krisialdiaren aurrean* 1982ko pastoral idazkian ere jasotzen zituzten. Inguruabarrak, neurri batean, desberdinak badira ere, idazki honetan jasotzen diren azterketa eta aholku asko eta askok indarrean dira.

*oinazearen aurrean
zirkinik egin gabe
geratzea saihestu
behar dugu.*

batzuek baino maila txikiagoan jasaten dihardute krisiaren eragina. Inguruabar honetan, bi arrisku saihestu behar ditugu: auto-atsegina eta zirkinik egin gabe geratu gehien sufritzen dutenen aurrean. Bi arrisku hauek estu lotuta daude. Auto-atseginak gure akatsak ez aitortzera eta aldatu beharrekoa ez aldatzera garamatza. Oinazearen aurrean zirkinik egin gabe geratzeak geure buruaren suntsipena ekarriko liguke eta zuzentasun eta bake sozialen porrot sakona.

*Indibidualismo
egoistak hondamendia
baino ez dakar.*

Benedikto XVI.ak, alderdi hauen inguruan hausnartzean, ondorengo hau dio egokitasunez: inola ere ezin dugula ahaztu, sakonean, gizaki guztiok erlasionaturik gaudela eta, horregatik, indibidualismo orok eta norberekeriaz gauzaturiko gogobetetzeak gatazka eta hondamendira garamatzala zuzen-zuzenean. Horregatik, behin eta berriz dio gizabanako eta erakunde guztiok mundu globalaren alde egin behar dugula eta irtenbide bakarra guztion artean eta guztion alde egiten duguna dela: “globalizazioaren egia, prozesu bezala, eta bere funtsezko irizpide etikoa, giza familiaren batasunak eta ontasunean duen hazkundeak dakarte. Beraz, etengabe ahalegindu behar dugu *planeta integrazioaren prozesuaren transzendentziara zabalduko kultura pertsonalista eta komunitarioa ahalbideratzen*”⁶⁴.

*Etengabeko
berrikuntza eta
aldaketaren dinamikak
kultura eta etikaren
oinarriak ahultzen ditu.*

27. Beste ezaugarri bat ere aipa dezakegu gure kulturaren inguruan: gero eta aldakorragoa eta kontingenteagoa dela. Inolako zalantzarik gabe, “ezagutzaren gizartea” deitutakoak eraginkortasuna du pertsonak pentsatzeko eta sortzeko duen gaitasuna gero eta gehiago erabil dezan, egiteko fisiko edo mekaniko hutsetatik askatuz. Ezagueraren kultura honek tresna pertsonal eta sozial bezala duen garrantzi gero eta handiagoak, berrikuntza kultura molde bihurtu du, hortik erator daitezkeen ondorio positiboekin. Gizarte berri eta dinamiko honetara iristea herrialde garatuenetakoentzat gordeta egoteaz gainera, horrek pertsonen artean eta herrialdeen artean dagoen alde nabarmena areagotzea dakarrelarik, gure jokaera pertsonal eta sozialean eragin larria duen beste auzi bat ere badago. Etengabeko aldaketan bizitzeak gure kulturaren eta etikaren oinarri eta trinkotasuna mehetzen dihardu. Pentsalari batzuen ustez, kultura berri honi “likido” dei diezaiokegu eta bertan pentsamendua “makal” bihurtzen da⁶⁵. Ez da harritzekoa, beraz, kultura berri honetan konpromisoak gero eta ezegonkorragoak eta epe laburrerakoak izatea. Ezta, gizakiaren eta bere jardueraren sineste eta pentsamendu sendo, unibertsal eta bateratzaileek iraupen praktikoa txikiagoa izatea ere. Horregatik da hain garrantzitsua gizarte bizitzako oinarri, balio eta bertuteak, hau da, egia, askatasuna, erantzukizuna, zintzotasuna, parte hartzea, zuzentasuna, guztion ongizatea, elkartasuna eta bakea, berraurkitzea eta sendotzea. Oinarri eta balio horiek ezin diote sendo izateari utzi eta ezin dira jokaera indibidual eta sozialerako bertute praktikoa egiten ez diren ideal teoriko hutsetara murriztu⁶⁶. Krisiak erakutsi digu.

⁶⁴ *Caritas in veritate*, 42.

⁶⁵ Hurrenez hurren, Zygmunt Bauman eta Gianni Vattimok sortu dituzte termino horiek.

⁶⁶ *Caritas in veritate*, 1-9.

*Krisialditik ateratzeko,
ezinbestekoa da kultura
eta ikuspuntu aldaketa
sakona.*

Guzti horregatik, krisitik aterako bagara, nahitaezkoa izango da kultura eta ikuspuntu aldaketa sakona. Benedikto XVI.ak dioen bezala, ezin diogu auzi sozial bati ekin, auzi antropologikoarekin estu lotzen ez badugu, hau da, giza izatasun eta duintasunetik eratortzen diren inplikazio guztiekin estu lotu ezik⁶⁷. Makina bat pentsalari dator bat gai honi dagokionez Elizaren irakaspenarekin:

Gizakia ekoizle, kontsumitzaile edo aurreztailetzat baizik hartzen ez zuten kulturak eta sistema ekonomikoak utzitako hondamenen aurrean, krisitik ateratzeko irtenbide jasangarri bakarra dago: humanismo berrian oinarritutako kultura berria sortzean, alajaina, gure gizarteak zentzuz eta gehiengoaren adostasunaz beste jarrera batzuetara bideratuz: errespetu handiagoa inguruarekiko, urritasun handiagoa eta izatearen kultura, “eduki-jabe izan-kontsumitu” joeraren gainetik⁶⁸.

⁶⁷ Ibid., 75.

⁶⁸ Camdessus, *Krisiaren kultura sustraiak*.

IV. KARITATEA ZUZENTASUNEAN, PARTE HARTZEAN, ERRUKIAN ETA ELKARTASUNEAN BIZI

Hainbat dei egiten dugu eta jarraibide eta iradokizun zehatz batzuk eskaini, krisialdian jokaera pertsonal, komunitario eta soziala bultzatzeko.

Krisiaren alderdi zehatzetako batzuek kristau elkarteari eta gizarte osoari aurkezten dizkioten eskakizunei erantzunak bilatu nahi dizkiegu.

Gure makaltasunetik, Jesukristoren Eliza bezala, Espiritu Santua euskarriztat dugula, itxaropenez bilatzen dugu Jainkoaren borondatea egitea.

Ebanjelioak Jainkoarenganako eta lagunurkoarenganako maitasuna banandu gabe bizitzeko diosku.

28. Aurreko puntuan, aztertu behar ditugun gai batzuk aipatzen saiatu gara. Era berean, aldaketa hauek gure ikuspuntu, balio eta jokaerak eraldatzea eskatzen digutela ere nabarmendu nahi izan dugu.

Kapitulua honetan, krisiak gure artean izan ditzakeen alderdi zehatzagoak eta horri eman beharreko erantzunak aztertuko ditugu. Eta hori egiteaz batera, guzti horretatik kristau elkartearentzat eratortzen diren eskakizunak landuko ditugu eta, azkenik, gizabanakoei, familiei, gizarte erakundeei eta aginte publikoei zuzenduko gatzazkie.

*** Aparteko deia fededun elkarteari**

Beste ezer baino lehen, geure argilunak agertzera eman nahi ditugu, oinarrizko eta beharrezkoenetik hasiz: betetzen dugu, Eliza bezala, Jainkoaren borondatea? Jakin badakigu betetze hori mugatua eta imperfektua dela beti. Horregatik, Elizaren santutasuna ez dator bertako kide garenon ez bakarkako ezta elkarteko jokaeratik, Kristorengan txertaturik egotetik eta bere baitan bizi den, eusten dion eta gidatzen duen Espiritu Santuaren egintza izatetik baizik. Aitortza honek, aldi berean, apaltasunera, bihozberritzera eta barkamena eskatzera eta itxaropena deitzen gaitu; apaltasuna gure muga eta bekatuen aurrean; bihozberritzea eta barkamena eskatzea Jainkoarenganako leialtasunean burutzea dagokigun misioaren beraren eskakizun bezala; itxaropena jakin badakigulako Kristo gurekin egongo dela garaien amaieraraino eta Espiritu Santua ez dela ahultzen eta ez duela huts egiten⁶⁹.

Krisi edo larritasun egoera bakoitza funtsezko auziak berriz pentsatzeko aukera da. Lehenengo eta behin, Jainkoaren borondatea ezagutzea bezain funtsezko gauza bat. Ebanjelioak labur-labur biltzen du jainkozko legea bi agindutan: *maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagunurkoa zeure burua bezala*⁷⁰. Aginduok betetzen dituenak bizia izango duela gehitzen du Jesusek; beste era batera esanda, Sortzailearenganako gure maitasuna ezin dela bere kreazioa eta, bereziki, bere antz eta irudiko sortu izan dituen kreaturak maitatu gabe gauzatu adierazten duten bi maitasun hauek ezin dira banandu. San Joanen Ebanjelioan, agindu berriak beste ezaugarri bat egotzen dio maitasun horri: absolutu eta baldintzarik gabekoa izatea, Jainkoaren maitasunaren adierazpen den Jesusen maitasuna bezalakoa: bizia emateraino⁷¹.

⁶⁹ Mt 28, 21; Jn 14, 16-18; Joan Paulo II.a. *Tertio millennio adveniente*. 1996. 32-36 zenb.

⁷⁰ Lk 10, 27.

⁷¹ Jn 13, 34.

Lurraren gatza eta munduaren argia izan behar dugu krisiaren sorleku izan den kultura honetan.

Jainkoaren borondate honek berriazko berezitasuna du Elizan: Berri Ona iragarri herri guztiei. Koordenada hauen barruan sortzen da premiazko galdera gaur egungo egoeran: jakin izan ote dugu gatz eta argi izaten krisia sortu izan den kulturaren? Logikoa dirudi, alde batetik, gure mugak apaltasunez aitortzea eta, bestetik, Jesusen hitzei gure barnean durundi egiten uztea: *baina gatz gatz bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, botatzeko baizik eta jendeak zapaltzeko*⁷².

Kristau elkarteak, karirateak eskaturik, Doktrina Soziala gauzatu behar du...

Ondorio bi atera ditzakegu esandakotik. Lehenengoa, kristau elkarteak berak, ebanjelioko aginduak bultzaturik, sustatu behar duela Doktrina Sozialaren gauzatea, bere printzipioez gidatuta eta egia, askatasuna, zuzentasuna, bakea eta maitasuna bezalako gizarte bizitzako balioak gordez eta suspertuz. Hori egitea, Elizaren karitate alderdiaren lehentasunezko eskakizuna da.

...legamia erara jarduteko gaur egungo ekonomia eta kulturaren.

Doktrina horren aberastasunaren eta berau ezagutzera emateko eta, batez ere, gure ekonomian eta gure kulturaren legamia bihurtzeko, mekanismo apostoliken arteko alde nabarmena antzematen dugu gure elizbarrutietan. Zer pentsatu eman beharko ligukeen zerbait da. Horretarako dauden talde eta mugimendu apostolikoak baloratzeaz eta zaintzeaz gain, eragile sozial desberdinekiko harreman eta lan zuzenagoa izateko aukera emango diguten arlo berrietara zabaldu behar dugu gure lan esparrua.

Begiak irekita eta bihotza gehien sufritzen dutenekiko errukira ondo zabaldua.

Begi irekien eta bihotz errukitsuaren jarrera sustatzean datza bigarren ondorioa, horrela, krisiak eragindako aurpegi oinazetsuak ikus ditzagun eta guztion ongizatearen, ondasunen banaketa unibertsalaren eta elkartasunaren printzipioen testigantza eman dezagun. Karitate alderdiaren bigarren jardura hau guztiz premiazkoa da eta ezin du beste ezerk ordezkatu eta, gainera, gure egiazkotasun eta sinesgarritasunaren froga-harria ere bada. Ordu honetan, Erreinuaren Berri Ona iragartzeko aparteko era da⁷³.

Krisiak gizarteko sektore oso zabaletan du eragina.

*** Krisiaren izurrite eta aurpegiak**

29. Datu batzuek, adibidez aurrezkiaren gehikuntzak eta kontsumoaren gutxitzeak, krisiak, gutxienez psikologikoki, herritarren sektore zabaletan eragiten diharduela adierazten digute. Era berean, defizit publikoari eusteko neurriek soldata murrizketak dakartzate eta horrek, era batera edo bestera, gizatalde gehienetan eragiten du.

Langabezia da bere eraginik suntsitzaileenetakoa.

Krisiaren eraginik suntsitzaileenetakoa langabezia da. Sektore batzuetan krisiak duen lastasunak, kredituaren, inbertsioen eta kontsumoaren uzkuarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan hiru urtetan langabezia-tasa hirukoiztea eragin du eta bikoiztea

⁷² Mt 5, 13.

⁷³ Mt 11, 3-5.

Nafarroan⁷⁴. Zenbakien atzean pertsona jakin batzuk daude, berrehun mila inguru, larritasun eta zoritzarrezko historiekin.

Horien artean, emakumezkoak, etorkinak, sarrera bakarra –eta kasu askotan gutxienekoa- duten familia gazteak dira multzorik kaltetuenak. Benedikto XVI.ak honela azaltzen ditu langabeziaren ondorio larriak: “luzaroan lanik gabe egoteak, edo luzaroan laguntza publiko edo pribatuaren menpe egoteak, gizakiaren askatasuna eta sormena, bere familia eta gizarte harremanak hondatzen ditu, arlo psikologiko eta espiritualean kalte larriak eraginez”⁷⁵.

Langabetuen eta lana dutenen arteko zulo soziala saihestuko duten neurriak bilatu behar dira.

Aipatu dugu dagoeneko lana dutenen eta lanik ez dutenen arteko gizarte eta giza zuloak dakarren arriskua. Horregatik, lan murrizketak mahaigaineratzen dituzten egoera zehatzen aurrean, funtsezkoa da bai enpresak eta bai indar sindikalak ere, langileak eta botere publiko eskudunak bidezko bide guztietatik, eta kasuan kasuko aukeren barruan, kaleratze iraunkorrak saihesteko formulak bilatzen saia daitezela.

Erantzukizunez gauzatu behar ditugu zuzentasuna, elkartasuna eta zerbitzua bezalako balioak...

Gorago aipatu dugun 1982ko pastoral idazkian, gotzain ministerioan aurreko izan genituenek langabezia-tasa handidun urte haietan bizi izan zen krisi larriaren ondorioei buruzko azterketa egin zuten. Urte asko igaro den arren, hausnarketa haietako askok gaurkotasun betea du. Zenbakiez hitz egiterakoan, ondorengo galdera esanguratsu hau egiten zuten: “zenbateraino dira gauza gure kontzientziak kezkatzeko eta elkartasun handiagoko kristau ekintza batera gu eramateko? (...) Gure nahia, batez ere, zuei dei bat egitea da, gauzak diren bezala ikus ditzazuen eta egoera honetaz gizatasun handiz jabetuak egon zaitezten, hemen adierazterik ez daukagun halako gizatasunaz”. Azkenik, oinazearen ingurukoak horrela ikusita, dei egiten ziguten “bakoitzak dituen erantzukizunen arabera geure erabakiak hartzen, zuzentasunak, solidaritzak eta zerbitzu egin-nahiak eraginik hartu ere; hiru horiek anaitasunezko elkarbizitzaren oinarri bait dira”⁷⁶.

...behartasun, segurtasunik ez, banaketa, elkartasunik ez, oldarkortasun, iruzur egoeretan...

...askapen eta itxaropenezko mezu ebanjelikoa helarazteko.

Krisiak zekartzan arazoan artean, ekonomikoak nabarmentzen zituzten, hain zuzen ere: “familia askorentzat behar gogorrean aurkitzea orainaldirako eta zalantzazko egoera etorkizunerako”; eta hauekin alderatuz, beren lan eta sarrerei eusten zietenak eta krisirik jasaten ez zutenak; baita sozialak ere, langabeziaren ondorio ekonomiko, psikologiko eta gizatiar larriak aipatuz; politikoak, elkartasunik ezak krisialdian bizikidetasuna hauskor bihurtzen duelako eta “jokabide liskarrak sortzen ditu”; eta etiko-moralak, esate barerako, “berekoikeriazko jarrerak azpimarratzea –bakoitzaren nahiz talde-bizitzan-, eta era askotako iruzurtzeak zabaltzeak –bai bakoitzakako, profesio-bideko, bai herri-mailako harremanetan”. Eta gotzainek, azkenean, zera baieztatzen zuten: guzti horregatik, “krisialdia desafio bat da kristautentzat (...) eta Ebanjelioko mezuarentzat berarentzat ere

⁷⁴ Iturriak: EUSTAT eta IEN. Gaur egungo langabezia-tasa %11 eta %12 ingurukoa da hurrenez hurren EHAEan eta Nafarroan.

⁷⁵ *Caritas in veritate*, 25.

⁷⁶ *Kristauaren jarrera gaurregungo krisialdiaren aurrean*. 1982, l.2.

desafioa da, Ebanjelioak askapenezko eta pertsona osoa salbatzeko mezua izan nahi duenez (Lc 4, 18-19)⁷⁷.

*Beldurrak
indibidualismo egoista
eragin dezake.*

***Fededun elkartearen erantzuna, fedearen eskakizuna**

30. Krisialdi larriak eragin dezakeen egoeraren aurrean izan dezakegun beldurrak bidezko ardura ekar dakiguke, haren biktima ez izateko eta horrek beharra, larritasuna eta ezegonkortasuna dakartza. Horren ondorioz, “salba dezala ahal duenak bere burua” esamoldean labur daitekeen gogo-aldartearen gizarte mailan orokor bihurtzeko arriskua dago.

*Gure Elizek hasierako
kristau elkartearen
elkarbanatzea
gaurkotu behar dute.*

Arrisku horren aurrean, nahitaezkoa da hasierako kristau elkartearen espiritu eta bizimodura begitatzeari: *fededun guztiak elkarturik bizi zirenen, eta dena denentzat zeukatena: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen*⁷⁸. Biziki dei egin nahi dizuegu parrokia, komunitate erlijioso eta gainerako eliz errealitate guztioi, krisiaren eragin gordinena jasaten dutenei laguntzeko, ondasunen banaketa gaurkatzeko bide zehatza aurki dezazuen.

*Karitatea gauzatzea
utziezineko egitekoa da
kristau elkartearentzat
eta sinesgarritasun
iturri gaurko gizartearen.*

*** Karitate bizi eta itxaropentsua sendotu**

31. Elizak bere fedea hots egin behar du, salbamenezko sakramentuak ospatu eta karitatea, hau da, Jainkoak guztioi –txikien eta behartsuenak direlarik bere kutunak- digun maitasuna gauzatu. Gizarte bizitzarako balioak itxuratzen eta zuzentzen dituen karitatearen gauzatzea kristau elkarte osoaren ezin utzizko misioa da, bere sinesgarritasunaren funtsezko frogaharria eta itxaropena ereiteko bide guztiz baliotsua.

*Gure Elizetan, gaur
egun, Caritas
erakundeak egiten
duen lana aztertuko
dugu.*

• Caritas gure elizbarrutietan

Ikuspuntu honetatik aztertu nahi dugu gure elizbarrutietako *Caritas* erakundearen bizitza. Behar gordinez jantzita iristen zaizkien kasuak gero eta gehiago direla egiaztatzeaz batera, egoera horiei erantzuna emateko egiten duten ahalegina benetan estimatzen dugu.

*Hiru alderditan:
1. zuzentasuna sustatu,
2. behartsuei lagundu,
3. karitatea bultzatu
kristau elkarteetan.*

Orokorrean, hiru dira *Caritasen* eginkizunaren alderdi nagusiak: zuzentasuna eta guztion ongizatea sustatu; makalenei lagun egin, beren egoera arintzeko eta bizimodu duina jadesteko lagungarri izango dituzten baliabide eta abileziez hornitzeko eta fedearen karitatezko alderdia sustatu kristau elkartearen.

*Zuzentasuna eta
guztion ongizatea
sustatzeari dagokionez,
berariazko misioari
leial jarraituz,
ezinbestekoa da beste
gizarte erakundeekiko*

Alderdi hauetako lehenengoari dagokionez, gure *Caritas* erakundeek aurrerantzean ere biziki ahalegindu behar dute **gizarte ahulenekiko dituen gabeziez jabearazteko eta gizarte zuzentasunerako beharrezko neurriak hartzea sustatzeko**, guztion ongizatearen ezinbesteko bermea da-ta. Eginkizun hau hobeto garatzeko, erakunde publikoen zein ekimen sozialekoen lankidetzaren leiala behar-beharrezkoa dela nabarmendu nahi dugu. Lankidetzaren horrek kontuan izan behar ditu eskumenezko erantzukizun desberdinak eta erakunde bakoitzaren

⁷⁷ Idem.

⁷⁸ Eg 2, 44-45.

koordinazioa,
konpetentzia
desberdinak nahastatu
gabe.

berariazko izatasun eta misioa. Une honetan, dei urgentea da, makalenen aldeko ahaleginak batu eta koordinatzeko. Horrela, sakabanatzea saihestu eta koordinazioa eragitean, gizarte antolamendu zuzenagoa lortzeko martxan jarriko diren neurrien eraginkortasunean, sakontasunean eta garrantzian irabaziko dugu.

Era guztietako
beharrizanetan, gero eta
laguntza gehiago
ematean...

Gure elizbarrutietako *Caritas* taldeen jarduerarako bigarren esparrua **krisiak egoera larrian jartzen diharduen gizabanako, familia eta talde guztiei laguntza eskaintzea** da. Eginkizun hau nabarmen gehitu da azken hiru urteetan. Aldi honetan, hirukoiztu egin da diru-laguntza eman izan zaien pertsonen kopurua. Hartzailen horien artean, familia erantzukizunei bakarrik erantzun behar dieten emakumezkoak, familia gazteak eta etorkinak dira nabarmendu beharreko kolektiboak. Argia da egoera honen zergatia: lana galtzean eta langabezi sariak bukatzean, sarrerak gutxitu egiten dira eta, ondorioz, ezin dira hipotekak edo alokairuak ordaindu eta etxebizitzak arriskuan jartzen dira eta zailtasun itzelak izaten dira behar-beharrezko gastuei –esate baterako, elikagaiak eta arropak- aurre egiteko. Honi inguruaren eta gizarte sarearen ahultzea gehitu behar zaio eta, etorkinen kasuan, lege arazoak, langabeziak beren egoera are eta larriago bihurtzen duelarik.

2008. urtetik aurrera, gure lau elizbarrutietako *Caritas* taldeek 14 milioi euro erabili dituzte diru-laguntza zuzenetan. Gainera, programa berriak jarri dituzte martxan: elikadura, etxebizitza, jantokiak eta aholkularitza. Oinarritzko beharrei aurre egiteko neurri hauetatik harago, laneratzeko eta etxebizitzak zaharberritzeko berariazko programak garatu izan dira. Neurri hauek gauzatzerakoan, beste erakunde eta organizazio sozialekiko elkarlana guztiz emankorra izan da. *Caritasek* ez du agortzen eta ezin du agortu behartsuenen aldeko gizarte zuzentasunezko egitekoa. Horregatik, kristau seneko edo bestelako jatorriko beste eliz erakunde batzuei ere beren eginkizuna eskertzen diegu.

...harrera eta gertuko
laguntasuna gure
kristau nortasunaren
berariazko zeinu
ebanjeliko dira.

Gure *Caritas* taldeak adoretu nahi ditugu, krisi larriaz eta zoritxar pertsonal eta familiarrez jantzitako une hauetan, beren nortasunaren bi adierazlerik nagusienetakoak ahalik eta gehien nabarmentzeko: harrera eta gertuko laguntasuna⁷⁹. Giza esperientziak erakusten digunez eta osasun fisiko eta psikikoko profesionalek azpimarratzen dutenez, harrera eta laguntza ona jasotzen dugula sentitzea hil ala bizikoa da une zailetan. Gure *Caritas* taldeen zerbitzuak errefortzu guztiz baliotsua du beren gaitasunak eta denbora behartsuenen aldeko laguntzarako borondatez eskaintzen duten gizon eta emakumeen kopuru esanguratsuan.

Kristau elkarteetan
karitatea bultzatzeak
boluntarioen

Kristau elkartearen fedearen karitate alderdia sustatzea da *Caritasen* jarduerarako hirugarren esparrua. Ezin utzizko alderdi honek gure parrokien, familia erlijiosoen, komunitateen, taldeen eta erakundeen bihotzean azaldu behar du. Familien barruan eta fededun bakoitzaren

⁷⁹ Iruña eta Tutera, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainak. *Gure kristau elkarteak berriztatu*. Garizuma-Pazkoko pastoral idazkia. 2005. 66. zenb.

partaidetza gero eta nabarmenagoa baloratzea eta bultzatzea eskatzen du.

bizitzan ere gauzatu behar du. Hau gertatzen ari dela islatzen digute bi jazoerek: azken hiru urte hauetan era esanguratsuan gehitu dira *Caritasi* emandako diru-ekarpenak; era berean, gora egin du *Caritas* erakundearen eta bere egitarauen esanetara jarri izan diren boluntarioen kopuruak. Gure eskerrik beroena, beren dohain eta ondasunak behartsuenekin konpartituz, eskuzabaltasuna erakutsi duten guztiei.

Gaur egungo egoera egokia da parroquia eta elkarteak Caritas erakundearekiko jarduera koordinatu eta bateratuan konprometitzeko.

Gaur egungo egoera sustagarri da gure *Caritas* taldeen hirugarren betebeharrak honetan sakontzeko. Elizbarruti bakoitzeko *Caritas* erakundea elizbarruti osoaren karitatezko jardueraren aurpegia bada ere, aurpegi horrek berariazko perfila izan behar du parrochien eta beste elkarte errealitate batzuen bitartez. Ez kristau elkarte bakar batek ezta fededun bakar batek ere, ezin du *Caritasen* “esku utzi” eskakizun horren betekuntza. Eta ez da komeni, gainera, elkarte bakoitzak bere irizpide eta lehentasunen arabera jarduterik ere, baldin eta karitatearen gauzatze hori ahalik eta ondoen burutu nahi badugu behintzat. Horregatik, nahitaezkoa da gure elizbarrutietako *Caritasek* parrokiekiko, pastoral barrutiekiko, eskualdeekiko eta beste eliz errealitate batzuekiko harreman zuzenari eustea eta, ahal den neurrian, areagotzea, bere misioaren gauzatzerako prozesu guztietan. Horrela baino ez dugu sustatuko azkenen aldeko zerbitzu ebanjelikoa dagokigun bezala: alderdi hori praktikan jartzeko bide zehatzak bilatzeko gauza den karitatearen bizipen pertsonal eta komunitariotik.

Biziera erlijiosoko familia desberdinek karitate ebanjelikoaren eliz konpromisoa aberastu behar dute beren karismarekin.

• **Biziera kontsokratua**

32. Puntu garrantzitsu honetan, bereziki zuzendu nahi gatzaizkie **ordena, kongregazio eta familia erlijioso** guztiei. Zuon sortzeko karismetan eta beren garapen historikoan, biziera ebanjelikorako eta azkenen aldeko zerbitzurako molde anitz eta agortezinak haragitzen dituzue. Zuon eredia, Ebanjelioaren adierazpen eta gizartearen aurreko sinesgarritasunaren zeinu izateaz gain, ezinbesteko sostengu da karitate alderdiak sakontasun handiagoa izan dezan gure elizetan. Zuon presentzia eta lana, askotan eta askotan eroapen handikoa, iraunkorra eta isila, benetako antidotoa da krisiaren eta berau eragin duten patologien aurka.

Familia erlijioso batzuek gizarte izurrite desberdinak jasaten dituzten pertsonen laguntzen diete.

Familia erlijiosoetako askok zuzenean eta egunez egun bizi duzue zerbitzu hori: gaixoak, gizarte izurrite desberdinak jasaten dituztenak, edadeko pertsonak, bizilekurik gabekoak, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, inork zaintzen ez dituen haurrak eta antzerako gizataldeak dira zuon senideak. Adore eman nahi dizuegu zuon konpromisoan eta bihotz-bihotzez gure estimu, miresmen eta eskerrona adierazi egiten duzenagatik. Biziera kontsakraturako bokazioak egon daitezten otoitz egiteaz batera, zuon zerbitzua eskaintzen jarraitzeko bideak aurkitzera animatzen zaituztegu, beren laiko izatetik, zuon egitekoa eragin eta sendotu dezaketen hainbeste gizon eta emakumeri zuon karismak ezagutzera emanaz.

Beste familia erlijioso batzuek zuzentasunean eta guztion ongizatean oinarritutako gizartea eraikitzen laguntzen duten balioetan hezten dute.

Beste familia erlijioso batzuek hezkuntzaren arloan gauzatzen duzue karitatezko zerbitzu ordainezin hori. Arren, aparteko arreta eskaini iezaezue baztertzea jasateko arrisku larria duten taldeei, zuon ikastetxeetan harrera egiteko bideak bila itzazue eta, beren familiarekin eta gainerako ikasleekin elkarlanean, gizarte-hezkuntza integrazioarako egitasmoak gara itzazue. Gogoratu eta gaurkotu zuon sorrerako karismak eta Jesusek *artzain gabeko ardiak bezala zebiltzan*⁸⁰ txikien eta bertan behera utzitakoengatik zuen zaletasuna.

Badakizue zuzentasunera eta guztion ongizatera bideratutako gizartearen oinarriak sortzeko ardura duguna. Jakin badakigu, beste alde batetik, sen ebanjelikoko balioetako hezkuntza garatzen ahalegintzen zaretena, bihar lurraren gatza eta munduaren argia izango diren pertsonak hezteko. Horregatik, biziki dei egiten dizuegu hezkuntza horretan espezializatu zaitezten: balio horiek jokaera zuzenduko duten bertuteetan haragitu; direlako balio eta bertute horiek jatorri, adierazpen eta fruitutzat izango dituen eredu berria eta hezkuntza elkarte berria eragingo dituen metodologia garatu pazientzia eta zorroztasunez. Benedikto XVI.aren esanetan, “karitatea biziagotuko duen eta egiaren gidaritza onartuko duen kristau humanismoa”⁸¹ eratzean datza.

• **Laikotza**

Gaur egungo kulturak laikoek gizartean duten berariazko misioa suspertzea eskatzen duten erronkak aurkezten dizkio ebanjelizatzeari...

33. Beren-beregi kristau elkarteari eskainitako idazkiaren atal hau osatugabe legoke zuzenean **laikotzara** jo eta indarrean dagoen krisialdi honi lotuta duen misioa aipatuko ez bagenu. Vatikanoko II. Kontziliotik, Elizaren bizitzan eta misioan laikotzaren partaidetza sendotu eta zehaztu baizik ez du egin Elizaren irakaspenak. Gaurko munduaren baldintzek, bere kultura, konplexutasun eta garapenak erronka berriak jartzen dizkiote aurrez aurre jarduerara ebanjelizatzaileari. Mundu konplexu honen arlo askotara, batez ere politika eta ekonomiara sartzea, neurri handi batean, laikoentzat denez errazago, hauek bihurtzen dira aparteko subjektu ebanjelizatzaile⁸².

...nagusi den kulturaren eta mezu ebanjelikoaren arteko zuloa nabarmena bada ere.

Laikoen duintasuna eta misioa haragitzeko urrats garrantzitsuak eman badira ere, luzea da oraindik egiteko dugun bidea. Eliza eta laikotza ulertzearen inguruan, Kontzilioaren eta Elizaren geroko irakaspenaren⁸³ azterketa sakona jarduerara eramateak zailtasunak ekarri zituen eta orain nagusi den kulturaren eta ebanjelioko mezuaren arteko zulo gero eta handiagoa gehitu behar zaio horri. Indibidualismoak eta gizarte aldaketa geroz eta handiagoak izugarri murriztu dituzte laikoen elkartze-garapenerako aukerak. Egoera horretan, eta mugimendu eta eliz komunitate berriak sortu diren arren, laikoen apostolutzak indar eta babes berriak behar ditu.

⁸⁰ Mk 6, 34.

⁸¹ *Caritas in veritate*, 78.

⁸² *Apostolicam Actuositatem*, 1.

⁸³ Joan Paulo II.aren *Christifideles laici* Burubide Apostolikoa da irakaspen hori ondoen islatzen duten agirieta bat.

Gizarte mugimendu batzuek partaidetza gogotsua eskatzen dute krisiaren konponbidean.

Gaurko krisiak primeran erakusten digu zenbateraino den makala gizartea; berau da, azken batean, krisiaren kostuen pairatzaile nagusia. Eskertzekoak dira, “hau guztion artean ordaindu behar dugu” delakoaren aurrean, “hau guztion artean konpondu behar dugu” aldarrikatzen duten mugimendu sozial batzuk. Esparru publikoan herritartasuna gauzatzeko era aktibo hau pozez hartzen dugu, gero eta anonimoago eta ahaltsuago diren indarrek gure ekonomia eta bizitza bera baldintzatzeko arrisku bizia dago-ta.

Kristau laikoek ekintzaile izan behar dute ekimen horietan gaur egungo kulturaren eta munduaren gatz eta argi izanik.

Zalantzarik gabe, laikoek herritarren mobilizazio honen sustapenean esku hartu behar du eta mobilizazio horretan parte hartu. Kontzilioaren ildo nagusiei jarraituz egin behar du, borondate oneko gainerako gizon eta emakumeekin batera guztion eta guztiontzako mundua eraikitzeke asmo zuzenarekin eta gizakiaren duintasuna, alderdi pertsonal zein sozialei dagokienez, erdian jarritz. Era berean, laiko apostoluzaren oinarri eta bultzada Elizan jasotzen, hots egiten eta ospatzen den Ebanjelioan bertan aurkitzen direla kontuan hartu behar dugu⁸⁴.

Laikoen jarduera apostolikoa, bere eliz izatasuna eta gaur egungo gizarte egoera kontuan hartuta, ezin da bakarka garatu.

34. Eliza da, honen haritik, laiko jardueraren jatorria: jarduera hori ezin da banakotasun hutsetik gauzatu, horrelako lurzoruan, Ebanjelioak dioenez, hazi apostolikoa, nahiz eta on eta zintzoa izan, azkenean zimeldu egingo delako. Horregatik, “munduko gauzen bidezko autonomia”⁸⁵ eta pertsonena beraiena kontuan hartuta, jarduera hirukoitz erlazionatua sustatu nahi dugu gure elizbarrutietan.

Laikoak Doktrina Sozialean hezi behar ditugu...

Lehenengo eta behin, laikotza Elizaren Doktrina Sozialean heztera bideratutakoa. Doktrina honen garapena, dinamikoa eta zehatza izan da, une historiko bakoitzeko erronka aldakorrei erantzutea bilatuz. Alderdi moral praktikoa hori izatean, benetan ahalmena du jarraitu beharreko bidea argitzeko eta garapen berrietara zabaltzeko. Horregatik, teologia eta pastoral heziketarako erakundeen, laikoentzako eta laikoen apostoluzarako gure elizbarrutietako zerbitzuen eta idazkaritza sozialen eta gizarte pastorgintzarako ordezkartzen arteko koordinazio eraginkorra sustatu nahi dugu, garrantzi handiko heziketa jarduera hau bultzatu eta sendo dezaten.

...laikoen talde ekintzaileak sustatu eta lagundu gizartearekiko konpromiso desberdinetan.

Heziketa jarduera beharrezkoa da helburu batera zuzendutako bide bezala; horregatik, bigarren jarduera bat eskatzen du, hau da: laikoen taldeak sustatu kultura, gizarte, zientzia, ekonomia eta politika arloetan. Beste bietatik banandu ezin daitekeen hirugarren jarduera, talde hauek, beren kalitate eta bizitasuna bermatzeko, ezinbestekoa duten etengabeko laguntza da. Hiru jarduera hauek elkar sustatzen dute. Eraginkorrak izan daitezen, ezingo da alde batera utzi ez alderdi espirituala lantzea, ezta aipatutako esparruekiko harremana eta trukea ere.

Adorea eman nahi dizuegu zuon bizitzak garatzen diren esparru sekularretan Espirituaren deia sentitzen duzuenoi, *lurraren gatz*,

⁸⁴ *Gaudium et spes*, 1, 40-44.

⁸⁵ *Ibid.*, 36.

Laikoen egitekoa ezinbestekoa da Elizaren misioan.

munduaren argia eta olean legamia izateko bokazio hori onar eta lan dezazuen. Erreinua gure munduan hazteko eta bere balioak hedatzeko bidea jartzea da horren helburu nagusia⁸⁶. Horregatik, dei egiten dizuegu aurrerago aipaturiko egiteko hirukoitz hori garatzen lagun diezaguzuen; laiko bezala dagokizuen egitekoaren bitartez Ebanjelioaren gaitasun eraldatzailea antzematera animatzen zaituztegu; ziur gaude, eta horrela adierazi nahi dizuegu, gaitasun hori garatzen ez den bitartean, Elizaren misioa dezente mugatuko denaz; azkenik, egiteko itzel honen garapenean zuokin batera ikasteko prest gaudela adierazi nahi dizuegu.

Krisialditik eratorritako arazoen aparteko eragina dute familien bizitzan.

• **Familiak**

35. Familiei ere –batez ere kristau familiei- zuzendu nahi dizkiegu hitz batzuk. Puntu honetan ere, gure aurrekoen pastoral idazkiak gaurkotatzen betea du. Gotzainek, Joan Paulo II.aren *Familiaris consortio* delakoaren testu bat oinarritzat hartuz, gogoratzen zigutenez, “gizarte-arazoen oihartzun berezia eduki behar dute familian, berau denez gizartearen oinarritzat zelula”. Gaur egun are eta garrantzitsuagoa den beste zerbait adierazten zuten aurrerago: “familiako elkarte-bizitzak elkarrekiko bizitzaren eginbide bat onartzera eta beronetan partekide izatera eraman behar du; eta eginbide honek behartsuekiko solidaritatez, denen onaren aurrean dugun erantzukizunetik eta zuzentasunaren zerbitzuetatik hartuko du bere arnasa”. Eta gaur orduan bezain garrantzitsua den aplikazio praktikoa batekin bukatzen zuten: “badira familiak egoera oso latza jasaten ari direnak. Batzuk beren bizitza arriskuan ikusterainokoa. Hauei laguntzarren neurritsuagoa bizitzea bide bat izan daiteke –bide emankorra eta egoerari dagokiona-, gizartearekiko jokabide egokietan hezkuntza bat lortzeko”⁸⁷. Dei egiten diegu familiei aldi hau graziazko aldi bezala eta, neurritasuna, errukia eta elkartasuna gauzatuz, fede eta maitasun sena sendotzeko aukera bezala bizi dezaten.

Eliz elkartearen zerbitzari garenok Jesusen bizimodu beraz kudeatu behar dugu guztion ongizateari begira gure ardurapean utzitakoa.

* **Gotzain, abade eta diakonoak**

Geuk ere bihozberritu beharra dugu. Jesusen bizimodua geure egiten ahalegindu behar dugu, bere sentimendu eta jarrerak jadetsiz. Araztebide honetan, eskuzabaltasuna, emankortasuna eta pobretasun ebanjelikoaren maitasuna sustatu behar ditugu geure bizitzetan. Erantzukizun eta kontu handiz kudeatu behar dugu geure ardurapean utzitako ondarea eta makina bat lagunek guztion ongizatearen zerbitzurako eta, bereziki, pobreenen aldeko zerbitzurako ematen dizkigun ondasunak. Gure apaiz eta diakonoen neurritasun, soiltasun eta eskuzabaltasuneko testigantza eskertzen dugu eta adoretu egin nahi ditugu, beren bokazio eta bizitzako egoeraren arabera, beren burua Jainkoaren eta anai-arreben, batez ere behartsuenen, zerbitzura eskaintzeko, bihotza gauzen menpetasunetik aske dutela bizitzearen poztasuna adierazten jarrai dezaten

* **Erantzukizun, parte hartze eta elkartasunerako deia**

⁸⁶ Elizaren Doktrina Sozialaren laburpena, 551 eta hur.

⁸⁷ Kristauaren jarrera gaurregungo krisialdiaren aurrean. 1982, III. 3.f.

*Gizarte osoari eskaini
nahi diogu hausnarketa
hau.*

36. Batez ere eta beren-beregi kristau elkarteei zuzentzen bagatzaizkie ere, gizarte osoari eskaini nahiko genioke gure hausnarketa. Bizi dugun uneak, pertsona bakoitzak eta elkarte edo instantzia sozial edo publiko bakoitzak erantzukizun bikoitza bere gain hartzea eskatzen du: krisiaren ondorioei aurre egin eta bertatik guztion ongizatea bilatuz eta ahulenei aparteko arreta eskainiz irten, eta gure ekonomia eta gure gizarte bizitza oinarri etiko sendoen gainean eraiki.

*Ez dugu neurri teknikorik
hartuko...*

Krisiari aurre egiteko eta irteera benetako eta jasangarriak bilatzeko makina bat doikuntza eta sakrifizio egin behar izango da. Denok dakigu ezin garela geure aukeren gainetik bizi eta ezin garela eztanda egitera kondenatuta dauden burbuilen gainean finkatu; ez dagokigu guri –ahalmenik ere ez dugu horretarako- neurri tekniko zehatzik hartzea. Beharrezko neurriak hartzerakoan, bi printzipio kontuan hartu beharko liratekeela uste dugu: parte hartzea eta erantzukizuna. Horrexek lagundu behar digu guztioi, enpresari, langile, erakunde sindikal, erakunde sozial, alderdi politiko eta botere publiko, geure helburu eta interes partikularrak gainditu eta guztion ongizatearen alde egiten. Ez da egia ongizate hori defendatzeko eta jadedesteko erarik onena, kosta ahala kosta, beren interes partikularra defendatu nahi duten indarren orekaren ezarpen askearen menpe uztea. Parte hartze eta erantzukizunak alde bakoitzaren bidezko eskubide eta betebeharren aitorten zintzoa eskatzen dute, beti ere interes orokorrari begira, horrela erabaki beharreko jarduerak guztiek onartzea eta sustatzea ahalbideratuz.

*...denok batera parte
hartzeko dei egin nahi
dugu, interes
partikularrak guztion
ongizatea bilatzearen
menpe jarritz.*

*Gizarte bazterketa
jasateko arrisku larria
dutenekiko elkartasun
benetako eta
eraginkorrerako deia
luzatzen dugu.*

Elkartasunerako dei hau zabaldu behar dugu. Eraginkortasunaren, gertaeren zamaren eta arrazoi ekonomiko hutsaren arabera, makalenak eta kaltetuenak kontuan hartzen ez dituen gizarteak bidegabekeria, diskriminazioa, banaketa eta gorrotoa sortzen ditu. Guztion ongizatearen benetako eta azken testa gizarte mailan atzean gelditzeko arrisku larria dutenekiko elkartasun eraginkorra da. Horien artean, hiru talde zehatzen inguruan ohartarazi nahi zaituztegu: nagusiak, etorkinak eta gazteak.

*Nagusien aldeko arreta
gizartearen kalitate
moralaren adierazle da
eta krisiak ez du arreta
hori hondatu behar.*

37. Pertsona nagusiak oraina eraikitzeke oinarria badira beti ere, gure gaurko nagusiak, gerra zibilaren zorigaiztoa eta gerra osteko laztasunak bizi ondoren, gure ongizatearen sorrerarako ezinbestekoa izan den berreraikuntza sozial eta ekonomiari aurre egin behar izan zion belaunaldi gaztea izan ziren; sakrifizioa egintza eta oinarri moral bezala onartu zuen belaunaldia; bere burua ez ezik bere ondorengoak helburutzat hartu zituen, beraiek izan ez zituzten aukerak geuk izan genitzan; ondorioz, kontsumitu ordez aurreztu eta giza etorkizuneari inbertitu zuen belaunaldia da. Asko zor diegu. Erretiratuta dagoen jende askoren eskuzabaltasuna ere aitortu nahi dugu: seme-alabei beren denbora eta diruarekin laguntzeaz gainera, boluntario bezala jarduten dute eliz eta gizarte erakunde askotan. Beren egiteko eta eredia ezinbestekoak dira gure gizarte moralki sendotzeko eta erantzukizun sozialaren, elkartasunaren eta doakotasunaren balioak ereiteko.

Pertsona nagusiekin duen jokaeraren arabera neur daiteke gizartearen kalitate morala. Azken hamarkadetan, idazki honetan bereizi ezin ditzakegun aldaketa esanguratsuak izan dira. Asko pozten gara, gizarteak, orokorrean, batez ere botere publikoen bitartez, bere egiten diharduelako bere nagusien aldeko arretari dagokionez dituen bidezko betebeharrak. Aldi berean, kezkarria deritzagu arreta horren eta familia, auzo eta gizarte inguruaren arteko aldentze gero eta nabarmenagoari. Errealitate hau, ekonomia-finantza arlotik harago doan gizarte ereduaren krisiaren adierazpena ere bada. Dena dela, denok –gizabanako, gizarte zibil eta administrazio publikoek- biziki ahalegindu behar dugu krisiaren eraginez gure nagusien aldeko arretak okerrera egin ez dezan eta beren duintasuna uneoro errespetatua izan dadin.

Krisialdian, kontu handiz babestu behar ditugu etorkinen eskubideak.

38. Etorkinei dagokienez, historiak, Biblian⁸⁸ esaten zaigunez, une batean edo bestean, herri guztiok izan garela etorkin erakusten digu. Horregatik, etorkinekin geure buruarekin dugun jokaera bera izateko agintzen digu, giza izatetik bereiztezina den immigrante izate hori geuri ere badagokigula sentituz. Honezaz gain, badaude beste bi arrazoi ere etorkinekiko gure sentimendu eta jarduerak egokiak izan daitezen. Lehenengo eta behin, gizaki guztiok, Jainkoaren antz eta irudiko sortuak izan garenez, duintasun bortxaezina dugula. Horregatik, kristau ikuspuntutik, giza eskubideak, besteak beste, lana eta bizimodu duina izateko eskubidea, giza familia unibertsalaren ikuspuntutik ulertu behar ditugu⁸⁹.

Bigarrenik, etorkinekin ezin dugu geure komenientzien araberako jokaerarik izan. Ezin dugu ukatu gure ongizateari egin dioten eta egiten diharduten ekarpena: aberastasuna sortu dute, Gizarte Segurantzaren sistema sendotu dute, gure biztanleriaren hazkundera ekarri dute, nahitaezkoak diren eta gizartean gutxi baloratuta dauden lanak egin dituzte eta aberastu egin gaituzte giza eta kultura arloan. Funtsezko justiziaz, guzti hori aitortu eta saritu egin behar diegu, etorkinentzat bereziki gogorrek diren garai hauetan. Iritzi publikoan azaltzen ari diren joerek kezkatzen gaituzte, etorkinen aurkako xenofobia arriskua adierazten dute eta. Kristau elkarteari, gizarte erakundeei, borondate oneko pertsona guztiei eta botere publikoei joera horiek baztertzeko lan egin dezaten eta etorkinen eskubideak arreta handiz babes ditzaten eskatzen diegu.

Dei berezia egiten dugu, gazteen gaur egungo egoerari jaramon egiteko.

39. Gazteriak ere asko kezkatzen gaitu. Laurogeiko hamarkadako krisiak orduko gazte askoren itxaropen eta ilusioak zapuztu zituen, kasu batzuetan, beren bizitzak ezinbestean hautsi zirelarik. Langabeziak eta hazkunde ekonomikorik ez izateak eragin nabarmena dute dagoeneko gazteengan, besteak beste, batez bestekoarekin alderatuz, langabezia-tasa bi aldiz altuagoa delako beraien artean. Bere giza kapitala, bereziki gerora begira behar-beharrezkoena duena,

⁸⁸ Dt 24, 17.

⁸⁹ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala; Caritas in veritate, 67; Laburpena, 373-4.

babesten ez duen gizarteak bere berariazko proiektzioaren eta herritarren gogoaren gainbehera eragiten du eta gizarte patologien agerpena errazten. Horregatik tresna legal eta enpresa jarduerak garatzeko egiten dugun deia, inplikaturako gizarte eragile guztien lankidetzarekin, gazteen enplegua eragiteko eta, edozein kasutan ere, bere gabeziaren eraginak arintzeko.

40. Gizatalde hauek eta krisiak astindutako beste batzuek nahitaezko egiten dute gure administrazioek gizarte gastu orokorrari zuzendutako partidari eusteko eta, ahal den neurrian, gehitzeko lan egiten jarraitzea. Gastu hau, aberastasunaren birbanatzearen eta zuzentasunaren eta guztion ongizatearen oinarritzko eskakizuna da. Zerga bidezko sarrera nahikorik ez badago, gastu hori arriskuan jartzen da eta gaur egun behintzat hil ala biziko garrantzia du kaltetuenera gizarte bazterketa saihesteko. Horregatik, legez ezarritako zergen ordainketa betebeharrak moral larria dela gogorarazi nahi dizuegu. Era berean, seriotasun beraz exijitu behar dugu inor ez dadila, arautzen duten arauen mamiarekin bat, bidezko eta neurriko arrazoirik gabe inolako gizarte laguntzatik etekinik ateratzen saia. Azkenik, botere publikoek zorrotzasunez, eraginkortasunez eta zintzotasunez jokatu behar dute herritarrek beren ardurapean utzi izan dituzten baliabideen administrazioan⁹⁰.

Krisialdian, zergen ordainketa betebeharrak larria da, horrela inoiz baino beharrezkoagoa den gastu soziala bermatzeko.

Premiazko deia egiten diegu indar sozialei, lan eskubideei eta bere baldintzei eta pentsio sistemai eta laguntza sozialei dagozkien bermeak susta ditzaten.

Garai honetan, ezin dugu ahaztu pobretasunaren eta langabeziaren artean dagoen lotura.

Oinarritzko eskakizun moral hauetatik harago, dei egiten diegu indar sozial eta politikoei, aurrera egin dezaten gaur egun irekita dauden auziak konpontzeko bidean: berme sozialen eredu jasangarria, lan egiteko eskubidea bermatzeko era hobea, zergazko egitura egoki eta zuzenagoa, gastu sozialaren finantzaketa eta baita lanaldia, langileentzako ordainsariak, lan biziaren orokorra, lan biziaren eta familia biziaren uztartzea eta, azkenik, pentsioen sistema finkatzeko era zuzen eta egokiagoak ere. Langabeziaren eragin larriak gogorarazi nahi ditugu beste behin ere, eta enplegu mota eta egonkortasunean gertatzen ari diren aldaketen inguruan ohartarazi nahi dugu.

Baterako agirian, Lanaren Nazioarteko Erakundeak eta Nazioarteko Moneta Fondoak agerian utzi dute langabeziak, 2007-2009ko Atzeraldi Handiaren ondorioz, herrialde garatuetan izan duen gehikuntza nabarmena; bere eragin kaltegarriak gizakiengan, familietan, haurrengan eta beren osasunean; gazteen langabeziaren kostu larriak; soldaten artean ikusten diren alde gero eta handiagoak; laneko behin-behinekotasunaren areagotzea eta gizarte kohesioaren gainbehera. Bi erakunde hauek, lanaren aldakortasunaren erronkak onartuz, neurriak proposatu dituzte egoera larri honi aurre egiteko, lan duina hazkunde sendo, jasangarri eta orekatuaren ardaztat jarritz⁹¹. Bere aldetik, Benedikto XVI.ak ere arreta eskaintzen die lan-moten aldaketei, beren alderdi positiboak eta negatiboak ebaluatuz; erakunde sindikalen garrantzia eta globalizazioen erronkei bide berri eta zuzenetatik erantzuteko duten erantzukizuna azpimarratzen du; pobretasunaren eta

⁹⁰ Eliza Katolikoaren katixima, 1916, 2409.

⁹¹ Ikusi, http://www.ilo.org/global/about-the-ilo/press-and-media-centre/press-releases/WCMS_144404/lang-es/index.htm

langabeziaren arteko lotura nabarmentzen du eta bat egiten du Joan Paulo II.ak “gizalegezko lanaren aldeko munduko koalizioa” egitearen alde egin zuen deiarekin⁹².

*Guztion ongizatea
bilatzean, beste herri
batzuekin elkartasunez
lotzen gaituen
zuzentasunezko
nahitaezko harremana
gogora ekarri nahi
dugu.*

Ezin dugu puntu hau bukatutzat jo, erraz ahantz dezakegun zerbait gogoratu gabe: zuzentasuna eta guztion ongizatea ez dira zatigarriak, gizateria osoa hartzen dute beren baitan. Giza desiorik zintzoenek zein kristau mezuak eskatzen diguten ikuspuntu zabalean, hain zuzen ere giza familiarenean, kokatzeko exijitzen digu elkartasunak. Gorago aipatu dugunez, krisiaren elikadura-alderdiak sufrimendua dakarkio jende askori herrialde askotan. Azkenaldiko protestek eta gobernu aldaketek horixe adierazten digute. Ezin dugu gure pentsaera geure interesen eta geure bizi mailaren defentsaren esparru estura mugatu. Ikuspuntu laburreko pentsaera litzateke eta are eta laburragoa termino etikoetan. Horregatik, justizia unibertsalak eta etika ebanjelikoak exijitzen diguten geure eskuzabaltasun pertsonalaz gainera, inolaz ere ezin dugu gutxitu garapen bidean dauden herrialdeei ematen diegun laguntza ez nahikoa; alderantziz, laguntza horren gehikuntza eragin behar dugu geure foroetan eta kanpokoetan. Esku Elkartuak erakundeak eta gizarte ekimeneko beste erakunde batzuek –elizakoak eta beste jatorri batzuetakoak- egiten duten ahalegina ezinbestekoa da bere garrantzi praktikoagatik eta nazioarteko elkartasun sena sustatzeagatik. Dei egiten diegu gure elizbarrutietako eliz errealitate guztiei, administrazio publikoei eta, orokorrean, gizarteari, beren aurrekontuen portzentaje gero eta handiagoa eskain diezaioten garapen bidean dauden herrialdeen aldeko elkartasunari.

V. BUKAERA

41. Idazki honen bukaeran, bere funtsezko edukira bueltatu nahi dugu: krisi hau finantzarioa eta ekonomikoa baino askoz gehiago da, sustrai etiko, kultural eta antropologikoak ditu eta era guztietako aldaketa sakonak egitera behartzen gaitu. Horregatik, aldi honek ezin du alferrikakoa izan. Krisiak aukera izan behar du gure gabezia tekniko, instituzionalak eta, batez ere, etiko eta kulturalak aitortzeko eta gizatasunezko bideetatik, gizakia oso-osorik, eta gizaki guztiak inolako desberdintasunik gabe, gure ekonomiaren eta gure gizarte orokorraren muin eta ardatz bezala jarriko dituzten bideetatik, aurrera egiteko.

Idazki hau, Eliza eramaile den Jesukristoren mezua egoera guztietan guztiz askatzaile eta salbatzailea deneko uste sendo eta sakonetik idatzi dugula gogoratu nahi dizuegu berriz ere. Horregatik, krisia deia da, gure elizbarrutiak bihozberri eta araz daitezen, mezu hori sinesgarri izan dadin eta, gainera, distira betea izan dezan. Itxaropenaren mezulari eta ereile izan nahi dugu gaur egungo zailtasun eta larritasunen erdian; zuzentasunaren eta guztion ongizatearen babesle eta sustatzaile; Jainko Aitaren maitasunean sustraitutako, bere Seme Jesukristoren gizonegite, heriotza eta berpizkundean adierazitako eta Espiritu Santuaren egintzaz eutsitako maitasunaren zibilizazioaren iragarle eta eragile.

⁹² *Caritas in veritate*, 25, 63-64.

Uste sendo eta misio honetatik, bat egin nahi izan dugu Elizaren Doktrina Sozialarekin eta bertan jasotzen den punturik nagusienarekin: gure ekonomiak gizakiaren izatasun, duintasun eta patuaren esanetara egon behar du; bere garapenak ez du gizakia baliabidetzat hartu behar eta, ondorio guztietarako, helburutzat hartu behar du; guztien parte hartzearen emaitza izan behar du eta bere fruituek guztiontzako izan behar dute; horretarako, egoki araututa eta gainbegiratuta egon behar du, guztion ongizatearen berme bezala eta, gizadiak bizi duen une honetan, ikuskera zein aginte globala eskatzen du.

Gure elizbarrutiek zuzentasunaren, guztion ongizatearen eta krisiaren eraginak gehien sufritzen dituztenen alde beren onena emateko berenganatu behar dituzten jarrera eta jarduerak aipatu ditugu. Azkenean, dei egin nahi izan diegu borondate oneko pertsona guztiei, gizarte eragile eta erakundeei eta administrazio publikoei, era bateratu eta solidarioan krisiari irtenbidea aurki diezaioten; gure gizartearen garapenerako oinarri etiko sendoak eraiki ditzaten; gizalegezko enplegua susta dezaten eta makalenak eta krisiak gehien astindu dituenak defendatzen ahalegin daitezen, gizarte zuzentasunaren eskakizun eta froga bezala.

42. Jesukristok otoitz egiten irakatsi zigun eta etengabe dei egin, Jainkoak guretzat eta gizateria osoarentzat, *zeruan eta lurrean*⁹³, duen borondatea bete dadin eska dezagun. Otoitza gure jardueraren giltza bihurtzen da, beti Jainkoarengana zuzenduta dagoelako, Hura gabe ezin baitugu ezer egin⁹⁴. Honen haritik, Benedikto XVI.ak hauxe dio: “*garapenak, otoitzean Jainkoarengana besoak altxatuta dituzten kristauak behar ditu, egiaz betetako maitasuna, caritas in veritate, benetako garapenaren iturria, gure ahaleginaren emaitza ez ezik dohaina dela sinesten duten kristauak*”⁹⁵. Horregatik, komunitate otoizlarien, monasterioen eta klausurako elkarten presentzia, beren besoak Jainkoarengana etengabe altxatuta dituztela, inoiz baino beharrezkoagoa dela uste dugu. Eskerrak ematen dizkiegu eskaintzaz beteriko beren bizitzagatik, kasu askotan, profetikoa eta heroikoa ere baden bizitzagatik. Gure ustez, Jainkoaren benetako grazia dira gure elizentzat eta gure gizartearentzat eta otoitz egiten diogu *mahastizainari*⁹⁶, bokazio berriekin bedeinka ditzan.

“Elizaren bizitza eta misioaren iturri eta gailur”⁹⁷ den Eukaristiaren ospakizunean jadesten du bere osotasuna otoitzak. Eukaristiak alderdi sozial berariazko eta erradikala du, *munduaren bizitarako ogi*⁹⁸ den heinean. Eukaristia ospatzen dugun bakoitzean, Jesusek bere bizia guztion alde eman zuela hots egiten dugu. Horregatik, “Eukaristiak besteentzat «zatitutako ogi» bihurtzera eta, ondorioz, mundu zuzen eta anaikorragoaren alde lan egitera, bultzatzen ditu Harengan sinesten duten guztiak”⁹⁹. Eukaristiaren eta konpromiso sozialaren arteko lotura bereiztezina sortzen da honela: “kristau guztien gizarte erantzukizunaren ikuspuntutik (...) Kristoren sakrifizioa interpelaten eta etengabe probokatzen gaituen askapenezko misterioa da. Dei egiten diet, beraz, fededun guztiei benetako bake eta zuzentasun egile izan daitezen”¹⁰⁰. Adore eman nahi diegu gure elkarteei, bizi dutena ospa dezaten eta

⁹³ Mt 6, 9-13.

⁹⁴ Jn 15, 5.

⁹⁵ *Caritas in veritate*, 79.

⁹⁶ Mt 9, 38.

⁹⁷ Benedikto XVI.a. *Sacramentum caritatis*.

⁹⁸ Jn 6, 51.

⁹⁹ *Sacramentum caritatis*, 88.

¹⁰⁰ *Ibd.*, 89.

ospatzen dutena bizi: zatitutako ogi izan munduarentzat¹⁰¹; zuzentasuna eta bakea bilatuko dituen maitasunaren zibilizazio berriaren testigu izan eta azkenei, Jainkoaren kutunei, lehentasuna eman¹⁰².

Amaitzeko, bat egiten dugu Mariarena bestiarekin; lehentasun hori adierazten du eta Jainkoaren laguntza ez zaigula inoiz faltako:

*Bere indar guztiaz jokatu du:
buru-harroak suntsitu ditu,
ahaltsuak goi-postuetatik bota
eta ezerezak gora jaso;
ondasunez bete ditu
gose zeudenak,
eta eskutsik bidali aberatsak.*

*Lagun etorri zaio bere herri Israeli,
bere errukiaz oroiturik:
hala hitzemanana zien
gure arbasoei,
Abrahani eta ondorengoei betierean¹⁰³.*

Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteiz
2011.eko martxoaren 9a, *Hausterre Eguna*

- ✘ **Francisco**, Iruñako Artzapezpiku eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Mario**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Ignacio**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Miguel**, Gasteizko Gotzaina

¹⁰¹ Jn 6, 32-35.

¹⁰² St 2, 1-5.

¹⁰³ Lk 1, 51-55.